



Klima-aldaketari aurre egitea lehentasun



Administrador
Fincas
Colegiado



ADMINISTRAZIOA

- ✓ Aurrekontua
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Jabeen batzarretan izatea
- ✓ Aktak egitea




KUDEAKETA

- ✓ Obrak
- ✓ Lizentziak eta laguntzak
 - Eusko Jaurlaritza
 - Udala



LEGE AHOLKULARITZA

- ✓ Jabetza horizontala
- ✓ Ezordaindutakoen erreklamazioa
- ✓ Sormen berriko komunitateen eraikuntza



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

30 URTETIK GORAGOKO ESPERIENTZIAK BERMATZEN GAITU

943 200 358 - www.eukicomunidades.com - ARRETA PERTSONALIZATUA ETA TELEFONOZ: 09-14:00 eta 15:30-19:30



V. GILDA LEHIAKETA 2019

V. Gilda Lehiaketan izena emateko epea zabalik dago

...eta kitto! Euskara Elkarteak Euskeraz Primeran! kanpainaren barruan antolatu duen V. Gilda Lehiaketan izena eman nahi duten tabernek, martxoaren 6ra arte izango dute horretarako aukera. Aurten **martxoaren 27, 28 eta 29an** egingo da lehiaketa, eta iaz moduan sari bi izango ditu: epaimahaiarena (150€) eta herritarrena (150€). Herritarrek botoa eman ahal izateko bozketak-izango dira tabernetan, eta botoa ematen duten herritarren artean asteburuko egonaldia zozketatuko da. Aurtengo epaimahaia Mireia Alonso, Iosu Mugerza eta Ruben Etxanizek osatuko dute. Iaz 22 tabernek hartu zuten parte lehiaketan; epaimahaiaren saria Amesti tabernak eraman zuen, eta herritarrena berriz, Guridik.



✓ Taberna bakoitzak **GILDA BAKARRA** aurkeztuko du.

✓ Aurkeztuko den gilda ...eta kitto!k emandako **TXARTELAREKIN IDENTIFIKATUKO** da eta, asko jota, **EURO BATEN** salduko da.

✓ Izena emateko azkeneko eguna: **MARTXOAK 6.**

✓ Parte-hartzaileek **GILDAREN ARGAZKIA** ...eta kitto!ra bidaliko dute **MARTXOAREN 13rako**, whatsapp-ez (**605 71 14 22**) edo email-ez (komunikabideak@etakitto.eus)

SARIAK:

1) Epaimahaiaren saria: **150€**

2) Herritarren saria: **150€**

Harremanetarako deitu **943200918** telefonora.

Antolatzailea



Euskara Elkartea

Laguntzaileak





Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Elisa Sainz de Murieta

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta inntzien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– Justizia eta egia, Altsasukoak aske! –

Lau haizetara aldarrikatu nahi dugu **Justizia**: Jon Ander, Jokin, Julen, Adur, Aratz, Iñaki eta Oihan aske gelditu arte!

Hori izan zen Urte Berriari eskatu geniona. Eta, urte berriak ekarri zigun apelazio-epaiketan Jon Anderri eta Juleni ukatutako 6 lekuko onartzea. Urtarrilaren 23ko bistan, San Fernando de Henareseko Audientzia Nacionalean lekuko guztiek ukatu zuten Jon Ander **Koxka** tabernan egon zela istiluak gertatu zirenean.

Lekukoen artean, Amaiak testigantza oso garrantzitsua izan zen. Zergatik? Berak ikusi zuelako taberna barruan geratutakoa, baina hori ez ezik, gertakariak jazo zirenean tenientearen andreagaiaren (Maria Jose) laguna zelako.

Amaiak esan zuen Maria Joserekin egon zela taberna barruan gau horretan, eta ez zuela agresiorik ikusi, txupito edalontziak hegan egiten baino ez. Eta, kalera atera zenean, tenientea lurrean ikusi zuela eta bere ondoan zegoen lagunari laguntza eskaini ziola, baina Maria Josek laguntza ukatu ziola; eta, ez ziola erantzun hurrengo egunean bidali zion mezuari.

Maria Josek, berriz, kontrakoa adierazi zuen epaiketan, besteak beste: bortizki jipoituak izan zirela taberna barruan, eta inork ez ziela lagundu. Asuntua da, Amaiak ez ezik, testigantza eman duten testigu guztiek ez zutela jipoi basatirik ikusi, eta bi agenteek eta haien bikoteek kontatutako "errelatoa" ezin izan dutela egiazki frogatu.

Hala eta guztiz ere, gazte batzuk bi urte baino gehiago daramate gartzelan, eta beste batzuk bederatzik hilabete egingo dituzte laster. Bitartean, gu lur jota gaude, ez baitugu ulertzen nola eman diezaieketen oraindik balioa agenteen eta neska-lagunen "kontakizunari". Zein interes dago atzean? Dagoeneko, ez ote da nahikoa ordaindu?

Apelazioaren zai gaude, triste gaude, asko sufritzen ari baigara, baina baditugu motiboak berri onak jasotzeko. Ez dakit orain jasoko ditugun, horixe nahi eta behar dugu: hiru hitzetan, **justizia** eta **egia Altsasukoak Aske!!!!!!**

Mila Salgado

Maiatzaren 8rako antolatutako greba feministarekin bat egitea erabaki dugunez, datorren asteko alea egun bat lehenago kaleratuko dugu, hau da, barixakuan izan beharrean egunean jasoko duzue buzoian. Hori dela-eta, astekarirako edozein informazio edo zorion-agurretarako argazkiak jasotzeko azken eguna martitzena izango da, eguazten eguerdirako inprentan izango garelako. Barkatu eragozpenak.

ERREDAKZIOA

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MENDABAL/MENDEBAL. - Mendebaldeko haize euritsua. Oso umela izaten da. "Mendebala atara dau, eta hurrengo egunetan guardasolakin ibilli biharko dogu". "Mendabala dabil eta horma guztiak bustixak dagoz".

astean esanak

"Azken aldian ikusten dudanez, gero eta krudeltasun handiagoa dugu inguruan. Badira euren txakurrak ostikoka hartzen dituztenak eta, zeozer esaten badiezu, haserretu egingo zaizkizunak. Txakurra eurena izango da, baina krudeltasun horrek denoi eragiten digu. Besoa trailan daraman emakumeari taxitik jaisterakoan txanponak erori bazaizkio eta ezin baditu jaso, hobe laguntzea berari barre egitea baino. Badira oraindik krudelak izatea nahiago dutenak bigun itxura ematea baino"

(FELIPE JUARISTI, IDAZLEA)

"Transexualitatea ez da hirugarren sexu edo kategoria bat, pertsona transexualak neskek edo mutilak baitira horrela sentitzen direlako. Baina, egun, medikuak izendatzen digun sexuarekin identifikatzen ez bagara, transexualaren etiketa jartzen digute eta medikuaren akatsaren morroi bihurtzen gara. Osasun zientzietan ez da ezagupen sexologikoa ikasten; horregatik, ez da ulertzen, transmititzen ezta praktika klinikoan kontuan hartzen ere. Sexu identitatea medikuek jarraitzen dute erabakitzen; eta praktika horrek ez dauka oinarri zientifikorik. Osasun zientziek ezjakintasun sexualaren hutsunea moral sexualarekin bete dute"

(AMAIJA URREJOLA, SEXOLOGOA)

"Bizitza modernoak aldatu egin gaitu; eta toki batzuetan goitik behera. Japonian, esaterako, familia baztertu eta individualismoa nagusitu da: lagunak *on line* dira, karaokea bera 'bakarrentzako' aretoetan egiten da, neskalagunak hologramak dira eta, ezkongabetza biderkatu den moduan, jaiotze-tasa beste inon baino gehiago jaitsi da. Adinekoek egindako delitu txikien kopurua ere laukoiztu egin da, bizitzako azken egunak kartzelan pasatzeko asmoarekin eginak. Urtero 30.000tik gora *kodokushi* edo bakarrek heriotzak gertatzen dira. Eta Suedian biztanlegoaren erdia bakarrik bizi da; eta lautik bat bakardadean hiltzen da"

(JUAN DIEZ NICOLAS, SOZIOLOGOA)

Eskolako aniztasun soziala lantzen dihardue Arrateko Andra Marin

Zapatuan Hik Hasik antolatutako jardunaldixetan parte hartu eben Arrateko Andra Mari ikastetxeak, eskolan martxan daken proiektua aurkeztuta. Jardunaldixetako gai nagusia "Aniztasun soziala eskolan: komunitatearen ahotsak" izan zan eta Arrateko Andra Maritik azaldu dabenez, "aurrera eruatzen ari garan praktika onak aurkeztu genduazen jardunaldixetan, Luis Ezeiza Eskoriatzako eskola publikuarekin batera. Gu-



re eskolatik, eskola komunidadariaren partaide diran bi gurasok euren esperientziak kontatu zittuen eta, horrez gain, zuzendarixak eta ikasketa buruak proiektuaren nundik norakuak aurkeztu zittuen. Jardunaldixak oso arrakastatsiak eta aberasgarriak izan ziran eta helburu nagusiña bete zan, hau da, eskolako aniztasun soziala balio positibo bezala helaraztia, daguaz aurreiritzixak aldatzeko".

Menpeko eta gaixo larrixendako laguntza teknikorako zerbitzua emongo dau Udalak

Gizartekintza sailletik zerbitzu barrixa ipiñiko dabe martxan, menpekotasuna edo desgaitasuna dakenen autonomia pertsonala hobetzeko asmuarekin. Idoia Sarasqueta ziñegotzixak azaldutakuaren arabera, "askotan menpekotasun, desgaitasun edo gaixotasun larriren bat daken gaixuak, ospitaleetik etxera bidaltzian, mogitzeko edo eguneroko bizitzako beste hainbat gauza egin ahal izateko laguntza teknikuaren premiña izaten dabe, hau da, garabiren bat, ohe-artikulaturen bat edo beste zeo-

zeren laguntasuna bihar izaten dabe. Horrelakuak Diputaziñuaren bittartez eskuratzen dira, eskaeria egin eta gero, baiña prozesua hiruzpalau hillebetez atzeratu leike. Horregaittik, premiña horrerri lehenbailen erantzuteko asmuarekin, Udalak maillegu zerbitzua ipiñiko dau martxan, Diputaziñotik laguntza teknikua aillegatu bittartian moldatu ahal izateko. Horretarako Eibarko ortopedia batian materixala erosi zan 2018xan eta aurten be gauza gehixago erosteko partida aurreikusitta dago".



Sarasketaren berbetan, "zerbitzua hamendik gitxira jarriko da martxan. Gizartekintza sailletik ezarriko diran irizpidiak betetzen dittuenak zerbitzua nahi adiña erabilli ahal izango dabe eta, holan, eskura izango dittue bihar dittuen laguntza-produktu edo materixalak". Zerbitzuaren hartzailliak desgaitasuna edo menpekotasuna daken pertso-

nak izango dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak edo organo jakin batek beste lurralde batzuetan hala aitortuta, baita gaixotasun larriren bat dakenak be. Eibarren errolatuta daguaz eta menpekotasuna, desgaitasuna zein gaixotasun larriren bat dakenak erabilli ahal izango dabe, Gizartekintza saillian eskaeria egin eta gero.

Astelehenian hasiko dira udaberriko erosketa-bonuak saltzen



Eibar Merkataritza Gune Irekiaren ekimenez garatuko daben udaberriko erosketa-bonuen kanpaiñiari astelehenian ekingo detse. Bonuen salmentak aurreko ediziñuetako dinamikari jarraituko detsa: 40 euro ordainduta, 50 euroko gastua egitteko aukeria izango dabe bonua erosten daben eibartarrak, kanpaiñarekin bat egin daben ixa 180 establezi-

mendutan. Azaldu dabenez, bonuak bittan (25 euroko bi txartel) banatuta dagoz eta erosteko interesa dakanak EMGI-ren bulegora (Untzaga Plaza, 7; Artola jate-txiaren aldamenian) juan biharko dau, astelehenian hasitta bono guztiak saldu arte (astelehenetik eguenera, 09:15etatik 13:45etara eta 16:15etatik 18:15era eta barixakuetan 08:15etatik 14:45era).



Beharapenen azokako 100 euroko erosketa-txartela Elena Padillarentzat

Euskeraz Primeran! kanpaiñaren barruan ...eta kitto! Euskara Elkarteak barriro hartu dau parte neguko beharapenen azokan. Erosketetan be euskariaren erabilera bultzatzia helburu daka kanpaiñak. Aurten euren mahaira gerturatu diraneri Euskaldian erabili ziran hiru roletako batekin (ahobizi, belarriprest eta bihotzgoxo) identifikatzeko eskatu detse eta, trukian, erosketak egittera doiazenerako karteratxua oparitu detse. Gaiñera, kanpaiñarekin bat egin dabenak Eibar Merkataritza Gune Irekiak emondako 100 euroko erosketa-txartelaren zozketan sartu dira eta irabazlia Elena Padilla izan da. Argazkixan ikusten dan moduan, pozarren jaso eban sarixa.

autuan

...ETA KITTO!-REN URTEKO BATZARRA

Martxuaren 14an egingo dau ...eta kitto! Euskara Elkarteak Urteko Batzar Nagusixa, alkartiaren lokalian (Urkizu, 11 solairuartian). Lehen deialdixa 19:00etan izango da eta, ordurako bazkidien erdixak baiño gitxiago agertuz gero, ordu erdi geruago hasiko da batzarra, 19:30xetan. Egunerako gai-zerrendia hauxe da: 2018ko gestiño-balantzea; 2019rako egitasmuak, bazkidekuotak eta aurrekontuak; galdera-erantzunak eta iradokizunak; zuzendaritza barrixaren hautaketa eta funtzionamendua; eta piskolabisa. Bazkideren batek argibideren bat nahi izanez gero, bulegora etorri edo deitzezko aukeria daka.

ZINE-FORUMA

Pagatxa alkartiaren eskutik gaur 19:00etan zine-forum saiua egingo da Portalean, Sarah Gavron zuzendarixaren "Sufragistas" pelikularen inguruan. Dinamizatzaillia Izaskun Rodriguez Elkoro izango da eta jarduera doakua eta irekixa izango da.

fM Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO Funeuskadi




Oharkabean utzi gaituzu lagun, iloba ta arrea, gure artetik joan zara ta hutsune bat geratzen da. Maite zaitugun guztiok orain jarraitu behar aurrera! Musu goxo bat jaso dezazun zuzenean masailera... Agur Iñaki, beste nunbaiten, noizbait elkartuko gera.

IGNACIO ARANBARRI AIZPURUA (2019-II-25)

Sendikoen izenean,
ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera
joan eta samin-agurrak bidali
dizkiguzuen guztioi.



IDURRE IRIONDO



Igogaillu barrixan ipiñi dittuen burdiñekin kezkatuta

Eibarko Alderdi Popularreko Francisco Javier Nuñezek idatziz helarazi dabenez, "hainbat herritar arduratuta dagoz Jardinetako igogaillu barrixan egin daben pasarelarekin, zihetzago esateko babes modura ipiñi dittuen burdiñekin. Udal gobernuari kezka hori kontuan hartu eta, egoki ikusiz gero, haurrak tentaziñoren bat eukitzia saihesteko neurriak hartzeko eskatu nahi detsagu".



erabiltzaille inguru euki zittuan Liburutegixak iaz, aurreko urtian baiño % 3,36 gehixago. 2018xan 13.250 bazkide izan zittuan, eibartarren %48. Urtian zihar 41.000 maillegu egin ziran (2017xan baiño 1.100 gehixago), batez beste 134 eguneko.

"Photocalla" ipiñi dabe Errebalen

Errebal Plataformak "photocalla" ipiñi dabe Coliseo parian eta eibartar guztiak animau nahi ditte bertan argazkixa egin eta sare sozialetan partekatze- ra, Instagramen eta Facebooken Errebal Bizirik perfila aittatuta, baita Twitterren be (@errebal1). Parte hartzen dabenen artian zozketia egingo dabe eta irabazliari Anardi tabernan bi ogitarteko eta bi garagardo oparituko detsez.

Iza-Campezok egingo dittu Errebalgo obrak

Kontrataziño-mahaixak Iza-Campezo aldi baterako enpresa alkartiari esleitu detsaz Errebalen egitteko daguazen obrak. Biharrak 5.369.178 eurotan adjudikatu dittue (BEZa barne) eta obrak egitteko epia 15 astekua izango da, baldintza-orrijetan aurreikusittakua baiño hiru hillebete gitxiago. Kontratua Aste Santua baiño lehen siñatuko dabe.



Etxe bakuendako dispositibua eskinduko dabe Azittaiñen neguan



Bazterketa egoera larrixan daguazendako neguan gaba pasatzeko dispositibua martxan ipintzia erabagi dau Udalak, gobernu-taldia EH Bildurekin iazko aurrekontuetan egindako akordio baten harira. Esperientzia pilotu modura ipiñiko dabe martxan neurrixa, Azittaiñen hiltegitako izandako eraikiñian (Oñarrizko Lanbide Heziketako Institutua dagan tokixan), eta zerbitzua aste honetatik hasitta negua pasau arte (apirillaren 14ra arte) emotia aurreikisi dabe.

Harrera-lekuak hamar plaza izango dittu eta ohia, afarixa, armozua eta garbittasunerako pertsonalerako gauzak emongo detsez erabiltzaillieri. Dispositibua izotza eta edurra egi-tten dabenian aktibauko dabe. Zerbitzua jasotzeko ez dabe eskatuko iñolako administraziño-baldintzarik eta arratsaldeko 20:30etatik hurrengo goizeko 07:45etara egongo da zabalik (holan ez dabe bat egingo ikastera doiazan gaztiek).

Alberto de la Hoz eta Jon Perez jeltzalien hautagai izango dira

Josu Mendicute Rodriguez Eibarko EAJ-PNVko alkategaixak Udal hauteskundieta-rako zerrendan "gestiñorako perfilla" daken bi hautagai egongo dirala emon dau aditzera: Alberto de la Hoz Gorriti (Eibar, 1981) Administraziño eta Zuzendaritzan lizentziatua da eta CIE Automotive eta CAF enpresetan jardun dau biharrian. Zerrendan bigarren izango da, independente modura. Eta Jon Perez Illana (Eibar, 1988) Farmazian lizentziatua da eta bi master egin dittu (Osasunaren eta Medikamentuaren Ekonomixan bat eta Injeniaritza Biomedikuan bestia). Zerrendan bosgarren hautagaixa izango da.



Gazte barri bi aurkeztuko dittu Udal hauteskundieta PSE-EEK

Miguel de los Toyos buru dakan PSE-EE alderdixak gazte bi aurkeztuko dittu Udal hauteskundieta-ko zerrenda osatuko daben hautagaixen artian: Ander Curiel (22 urte) Komunikaziñuan graduatu da eta ikasketak As egunkarirako idazten dittuan kolaboraziñuekin tartekatatu dittu. Horrez gain, Jende Xumea, La Salle ikastetxeko GKEiaren proiektuetan laguntzen jarduten dau. Eta Iñaki Azkuek (21 urte) Zientzia Politikuak ikasi dittu. Bixak euskaldunak eta Eibarko Gazte Sozialistak alkarteko kidiak dira.

Egogaingo bihariñak kolore morearekin jantzi eben euren burrukia

Egogain Gerontologia Zentruko bihariñak giza-kataia osatu eben eguaztenian, egoitzako 4. pisuan, euren lan baldintzen aldeko burrukaren barruan martxan dittuen mobilizaziñuen harira. Horrekin batera egoitza aldamenian dagan Wenzeslao Orbeako igogaillutik behera pankarta erraldoia bota dabe, ke eta guzti. Azaldu dabenaz, "keiaren koloria morea izatia pentsatu dogu, azken bati-
an emakumion burrukia dalako. Ekintza honekin Aldundiari adierazi nahi detsagu burrukan segitzeko asmo sendua dakagula, nagusixak merezi daben arretaren alde eta bihariñon lan baldintza duiñen alde".



Ekingune Ekintzaileen Elkarteak zuzendaritza aldatu du eta Maialen Gisasola izango da elkarteko presidentea aurten. Gisasola Eibarrooms auto-checkin kudeaketako ostatuaz arduratzen da eta Ekingunek antolatzen duen 'On ekin' lehiaketa irabazi ondoren, hiru urte daramatza elkarte barruan. Hain zuzen ere 'On ekin' egitasmoari bultzada eman nahi dio eta horren alde egingo du lan aurten, besteak beste.

MAIALEN GISASOLA (Ekinguneko presidentea):

“Debabarreneko ekintzaile guztiei aukerak aman nahi dizkiegu”

- Zer moduz lehen eguna Ekinguneko presidente moduan?

Berez eguaztenean hasi nintzen, baina gaur estreinatuko dut kargua ofizialki Debako emakume erakundearekin daukagun ekitaldi txiki batean. Elkarteko kide guztien artean egiten dugu lan Ekingunen eta presidentea naizenez elkarteko ordezkari moduan joango naiz udaletxera, irratira edo horrelako gauzetara, baina besterik ez.

- Zergatik izendatu zaituzte presidente?

Izendapenari dagokionez, nork bere burua aurkezten du, baina nire kandidatura bultzatu egin zuten. Batzar Nagusian nire hautagaitza mahai gainean jarri zuten eta nik onartu egin nuen. Azken finean, aurten ez bada, datorren urtean edo hurrengoan tokatuko zitzaidan, eta nahiago dut orain egin. Lan asko daukat, baina Eibarroomsekin martxa hasi dugu eta Ekinguneko presidente izateak duen ardura hartzeko gogoz nago.

- Zer eskaini ahal diozu Ekinguneri presidente moduan?

'On ekin' lehiaketari pare bat buelta eman nahi dizkiot, bultzada emateko. Nire adineko (25 urte) beste bi neska (Bizipozokoak) daude taldean eta hiruon artean 'On ekin' bultzatzeko lana gogoz egingo dugu. Bestetik, presidente moduan aurpegia emango dut elkartearen izenean eta ahal den neurrian ekintza guztietara joango naiz.

- Zenbat kide, enpresa edo proiektu daude Ekinguneren baitan?

30 kide daude. Denetariko enpresa eta proiektuak ditugu: aholkularitza, aseguruak, marketina, dendak, itzulpengintza...

- Horretan datza Ekinguneren izaerak? Anitza izatea?

Denon artean laguntzea da asmoa. Sektore asko dago elkartean sartuta eta gure artean

“Gero eta bazkide gehiago dago elkartean, aurpegi berri asko eta jende gaztea sartu da”



lan egiten dugu bata bestea-rekin. Eibarroomsen, adibidez, Ekinguneko beste kide batekin landu genuen webgunea eta aholkularitza elkarteko beste bazkide batek ematen digu.

- Zeintzuk dira Ekingunek dituen erronkak 2019. urterari begira?

Urte amaieran bilera handi bat egin genuen bazkide guztiekin eta, 2018an egindakoa erreparasatu ondoren, 2019an aurrera atera nahi duguna zehaztu genuen. 'On ekin' lehiaketa da gure ikurra eta proiektuarekin aurrera egingo dugu hainbat aldatetarekin. Gero, mentoring (aholkularitza) aldeetik gauza gehiago egin nahi ditugu. Eta bestetik, beste herri batzuetara zabaltzen ahalegin du nahi dugu. Elkarteko kide gehienak (30etik 28) eibartarrak gara, baina ez dugu Eibarren bakarrik gelditu nahi. Debabarreneko ekintzaile guztiei aukerak eman nahi dizkiegu.

- Eskualdeko beste herrietan ez dago Ekingune bezalako elkarterik?

Ez, baina badaude Ekingune bezalako elkarte bateko kide izan nahi duten enpresa edo dendak.

- Nolakoa da Ekinguneren jarduna?

Hilean behin biltzen gara hilabetean egindako lana ikusteko. Proiektuak taldeetan banatzen ditugu eta taldeek euren barruan egiten dute lan ahal duten neurrian. Bestetik, 'On ekin' eta bestelako ekitaldi batzuk antolatzen ditugu.

- Ekingune 2012an sortu zen. Nolako balorazioa egin duzue zazpi urte hauen inguruan?

Gero eta bazkide gehiago dago elkartean, aurpegi berri asko eta jende gaztea sartu da. Ekintzailetza berba denon ahotan dago eta gazte askok jakin nahi du hori zer den.

Euskadiko Klima-Aldaketaren Astea izango da gaur hasita hilaren 10era arte eta hainbat ekintza egingo dira gure herrian. 6tik 27ra **'Gure mundua eraldatzeko 17 helburu'** izeneko erakusketa egongo da Portalean, 7an 18:30ean **'Klima-aldaketaren inpaktuak Euskal Herrian'** izeneko hitzaldia eskainiko du Elisa Sainz de Murietak Portalean, 10ean 18:30ean **'O me atiende ya, o me voy'** antzezlanaren egongo da Portalean eta 12an 19:00etan **'Una verdad muy incomoda: ahora o nunca'** dokumentala eskainiko dute Coliseoan.



ELISA SAINZ DE MURIETA (klima-aldaketan aditua):

“Sasoiz gabiltza klima-aldaketaren eragin larriagoak ekiditeko”

- Hasi gara klima-aldaketaren ondorioak jasaten?

Bai, dagoeneko klima-aldaketaren hainbat eragin neurtu daitezke. Adibidez, tenperatura aldaketak edo itsas mailaren igoera. XX. mendean itsas-maila euskal kostaldean 2 mm/urteko abiadura igo da, eta abiadura hori 90eko hamarkadan bizkortuz joan da. Gutxi badirudi ere, azken 7.000 urteetan gertatutakoa baino 4 aldiz handiagoa da 2 mm igoera tasa. Ur baliabideei dagokienez, azken 60 urtetan bataz-besteko ur-emariak gutxitu egin dira. Mundu mailan, Ipar eta Hegoburuko izotzen zabalera eta sakoneran aldaketa nabariak neurtu dituzte.

- Berandu gabiltza klima-aldaketa hori gelditzeko?

Sasoiz gabiltza eragin larriagoak ekiditeko. Hori argi azaltzea eta ulertzea garrantzitsua da. Izan ere, negutegi efektuaren gasak atmosferara jaurtitzen ditugun bitartean, klima-sisteman aldaketa gehiago eragiten ari gara, eta honen ondorioak handiagoak izango dira. Beraz ez, ez gabiltza berandu, baina klima-aldaketari aurre egin behar diogu lehen-tasunez.

- Zeintzuk dira klima-aldaketaren eragin nagusiak Euskal Herrian?

“Klima-aldaketa lehen-tasunezko gaia da. Ez da izotz-geruza handien urtzea bakarrik. Gure herrietan eragiten du”

2050. urterako itsas-maila 20-27 z m igo-tzea espero da, kostaldean muturreko gertakariak areagotuko dira, eta ondorioz, klima-aldaketak eragin handiagoa izango du. Tenperatura igo egingo da, eta bero-boladak maizago gertatzea eta egun gehiago irautea espero da. Prezipitazioari dagokienez, ziurgabetasun handia dago oraindik, baina orokorrean ur-emaria murriztea aurreikusten da.

- Noren esku dago klima-aldaketaren aurkako neurriak hartzea?

Klima-aldaketari aurre egiteko bi neurri nagusi daudela esan dezakegu. Lehena, ekiditea. Hau da, klima-aldaketa sortzen duten negutegi efektuko gasen murrizketa helburu duten neurri eta politikak hartzea. Euskal Autonomia Erkidegoan arlo

nagusiak energia eta garraioa dira, beraz, politika hauen ardura duten sailek dute hauek eraldatzeko eskumena. Esan beharra dago EAEn garraioaren %80 errepide bidezko garraioa dela, beraz, gure garraio ohituretan ere badugu zeregina.

Klima-aldaketarako bigarren neurriak egokitzapena du helburu. Hau da, gerta daitezkeen inpaktuei aurre egiteko prest egoteko neurriak hartzea. Hiri eta herrietan landu daitezke batez ere neurri hauek, baina zailtasunak daude, prestakuntzarekin edo finantzazioarekin adibidez. Beraz, Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren rola garrantzitsua da egokitzapena bultzatzeko.

- Gizartea gaiaren garrantziaz ohartzen dela uste duzu?

Uste dut ez garela premia ohartzen. Lehen-tasunezko gaia da, ez da izotz geruza handien urtzea bakarrik, klima-aldaketak gure herrietan eragiten duela eta eragiten jarraituko duela ohartu behar dugu.

- Nondik nora joko duzu Eibarren eman-go duzun hitzaldian?

Klima-aldaketaren inpaktuak eta ekidite politikak aztertzen dihardut, eta hauen inguruan izango da hitzaldia. Euskal Herrian jasan ditzakegun eraginei buruz egingo dut berba batez ere.

*arantza alvarez*

Haurreriarekin lotuta dauden beste gai batzuetan bezala, begiak zabaldu beharra dago eta gure inguruan gertatzen denaz ohartu

Abusu sexuala haurtzaroan

Azkenaldian hedabideetan asko hitz egiten ari da haurtzaroko abusu sexualen gainean. Iraganaldiko kasuak ezagutzera eman dira. Haurtzaroan abusuak sufritu zuten eta orain helduak diren pertsona batzuk kontatzeko eta salatzekeo ausardia izan dute. Aurrea egitea oztopatzen duen aztarna lagatzen duten esperientzia traumatikoak daude...

Kontua ez da jendea izutzea, baina haurreriarekin lotuta dauden beste gai batzuetan bezala, begiak zabaldu beharra dago eta gure inguruan gertatzen denaz ohartu. Nola jakin dezakezu abusu sexualak edo beste mota bateko tratatur txar egoera bat ematen ari dela? Garrantzitsuena hiru gauza lortzea da.

1. Gure ume/gazteei entzun.

- Bapatean eta inolako azalpenik gabe eman daitezkeen aldaketan aurrean adi egon behar dugu: loa, elikadura, ikasketak, jolasak, besteekin duten harremana, agresibitatea...

- Beldurra (eta ez lotsa) pertsona heldu edo heldu espezifikoaren aurrean.
- Bere adinari ez dagokion ezagutza eta lenguaia sexuala.
- Adierazle fisikoak: lesioak, beltzuneak, mina esertzekoan edo ibiltzerakoan...

2. Familia barruan komunikazio giro on bat lortu.

Denbora izatea eurekin hitz egiteko, seme-alabentzako eskuragarri egotea, bere eskaerak sumatzea, euren gauzengatik galde-tzea... Azken finean, konfidantza eta segurtasun giro bat sortu euren egunerokotasunari buruz hitz egin dezaten.

3. Babestu.

Adingabea mugitzen den testuinguru guztiak ezagutzea. Lekua eta denbora, egiten duen jarduera eta berarekin harremanetan dauden pertsonak. Alderdi hauek guztiak argi baditugu errazagoa da gure seme-alabek daukaten arrisku eta babes gradua baloratzea.

Informazio gehiago: www.garaitza.org

*ekhi belar*

Aurten elkarte gastronomikoko presidente izatea tokatzen zait eta, hori ez bada heldutasunera heltzea, ez dakit zer izan daitekeen

Heldu

Irudi berriarekin nator zutabe honetara. Dagoeneko esan dezaket: ez naiz gaztea. "Aspaldi Ekhi, aspaldi", esango du bere bizitzaren 30. hamarkadara iritsi ez den norbaitek. "Gorputza bai, baina burua ume batena daukazu", grazia gabeko txisteak egiten trebea den beste batek. Ni baino zaharragoak direnek gazte ikusiko naute agian, nire gaztetasunak euren gaztetasunari eutsiko balio bezala. Amamarentzat, umea beti.

Aspaldi kendu zidaten Gazte Txartela eta 'señor' deitu didate hainbatetan, baina aitak eta lagunek sortutako elkarte gastronomikoko presidente izatea tokatzen zait aurten eta hori ez bada heldutasunera heltzea, ez dakit zer izan daitekeen. Pentsatzen nuen biharamunak bi egun irauten zuenean heltzen zinela heldutasunera, baina ez, hori lehenago gertatzen da tamalez. Heldutasunean biharamunak hiru egun irauten ditu.

Gauza bat esango dizuet: heldutasuna ez da hainbesterako. Gaztea zarenean nagusiak jakinduriak beteriko izakiak direla uste duzu, adinarekin jasotako zerbait izango balitz bezala. Bai, helduek

gazteek baino gauza gehiago bizi izan ditugu, denboraren legea da, baina zin dagizuet, ez dakigu gehiago. Ustezko jakinduria horren barruan ideia hutsak besterik ez daude kasu askotan, gehiegitan. Ondo jantzitako pare bat berba eta aditu itxura ematen dituguten keinu eta begiradak.

Ez dut gaztaroa faltan sumatzen. Berriz ere sasoi hori bizi izatea? Nagiegia naiz! Ikasgai baten nota igotzeko beste azterketa bat egiteko aukera ematen zigutenean bezala. Zertarako berriz ikasi, lehenengoan gauditu baduzu? Nagitasun hori bai dela belaunaldiartekoa.

Ez ditut gaur egungo gazteak ulertzen eta horrek bai, sentsazio horrek bai konfirmatzen du gaztetasuna atzean utzi dudala. Kontua da gazteak behar ditugula gizarte moduan aurrera egiteko. Zuen atzetik gabiltza! Gazteekin konektatzea da gaur egungo *El Dorado*. Kontu zaharrak esateari eta iraganari gorazarre egiteari utziko diogu, zin dagizuet.

Eta horrela amaituko dut artikulua, ikasbide edo aholku barik. Ez naiz hain heldua.



Kezka dantza taldiaren
eskutik koko-eskian urten
eben koko-marru eta
koko-dantzarixak
eguzkixa lagun
euki eben
zapatuan.
Otaola-
Kiñarraga
auzoko
basarrietara
abiatu
aurretik,
urtero lez,
merkatu
plazan egin
eben lehen
agerraldixa, eta
arratsaldian,
barriz, Mauxitxa
txarangarekin batera
herriko erdialdeko
kalietan ibilli ziran,
kalejiran.



ARGAZKIAK:
Fernando Retolaza





Eta koko-marru eta koko-dantzari konpartekin jairako girotzen hasi eta gero, atzo ospatu genduan Eguen Zurixan sartu giñan betebetian Aratostietan. Egurdixa lagun, bazkalostian hasi ziran herriko ikastetxien kalejirak eta bestelako jarduerak. Arratsaldian, barriz, Adolfo Jainagak eta ikasliak girotutako kalejira abiatu zan Urkizutik, Untzagaraiño. Eta Untzagan illuntzeraiño egon ziran Lisker taldekuak eta Astixaren eskutik egin ziran eskulan taillarrak.

Gaur Aratoste Barixakuko egitaraua 20:00etan hasiko da, urtero lez Kaldereruen kalejirekin. Urkizun alkartuko dira Kezka dantza taldekuak, ...eta kitto! Euskara Elkartekuak, Txolartekuak, Ustekabe fanfarrekuak, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilarixak, Lagun Taldekuak, Untzagako jubilaueen egoitzako abesbatzako kidiak, Kaleetan Kantuz taldekuak eta Jainagaren trikitixa eskola-kuak eta, danak alkarrekin, kantu eta dantza artian egingo dabe Untzagaraiño-ko bidia. Eta Untzagara ailegatuz, 20:30xak aldera hantxe eskinduko dittue Kaldereruen kantuak eta dantzak. Aratostietako pregoia, barriz, 21:00etan izango da, Untzagan, eta Eibarko Koru Gaztiak irakorri-

Koko-jantzi jaixarekin gozatzeko sasoia

ko dau. Eta gabian, 23:30xetan, "Los chivatos de Ana Frank" taldekuak kontzertua emongo dabe Untzagan. BilboRock-eko lokaletan sortutako taldiak punk "berezi-xa" egitten dau eta osatzen daben musikuen artian eibartarik be bada. Martin Azpilikueta "El Marto", Pis "Niño Rata", Josue Medrano "Niño Agua", Jushepe Erreti, Mario Fraile, Mikel Rojo "Niño Fuego" eta Joaquin Pedro Gomez dira "Los chivatos de Ana Frank".

Kuadrillak protagonista zapatuan

Aratoste Zapatuan, barriz, eguardixan

hasiko dira ekitaldixak: 12:00xetatik aurrera Untzagako karpan animaziñua eta pintxo-potia egongo dira, San Kristobalگو jai batzordekuak girotuta. Horrez gain, 12:30xetatik aurrera Rockalean taldekuak jardungo dabe Untzaga inguruak zuzeneko musikarekin girotzen, 14:00xak arte. Eta, horrekin batera, nahi dabenak erretatua egitteko aukeria eukiko dau, asmo horrekin Untzaga plazan ipiñiko daben "photocall"-ian.

Eta 12:30xetan hasiko da Aratostietako kuadrillen kalejiria, parte hartzeko izena emon daben taldiekin. Ustekabe fanfarre-



Urtero lez, gaur illuntzixan urtengo dabe kaldereruen Urkizutik eta euren kantu eta dantzak egitten kalejiran ibilliko dira Untzagaraiño.

kuak lagunduta, Untzagatik abiatuko dira Calbeton, Bidebarrieta, Urkizu, Arragueta, Errebal eta Toribio Etxebarria kaliai ziherkatu eta Untzagara bueltatzeko.

Arratsaldian, barriz, 18:00etatik aurrera koko-jantzi lehiaketia egingo dabe As Burgas Galiziako Etxian. Parte hartzen dabene ume guztiak oparixa jasoko dabe eta hiru onenendako sarixak banatuko dittue antolatzailliak. Ordu berian abiatuko da Untzagatik Brass Band taldia, kalejiran, eta illuntzera arte ibilliko dira kaliai musikarekin alaitzen. Untzagako karpan, barriz, 18:30-xetatik 21:30xetara umiendako berbenia egongo da, Alaiki taldiarekin. Bixen bittartian, 19:00etan banatuko dittue kuadrillen kalejira, onduen apaindutako taberna eta Aratostietako kartel lehiaketetako sarixak, karpan. Eta eguardixan bezala, arratsaldian be Untzagako "photocall"-ian erretratuak egitteko aukeria eukiko dau jendiak, 19:00etatik 21:00etara. Eta gabeko 23:30xetatik 02:00xetara Alaiki taldiaren eskutik dantzaldixa egingo da Untzagako karpan.

Playback lehiaketia domeka arratsaldian

Aratoste Domekia bezperako eguna baiño zeozer trankillagua izango da: goizeko 11:00etan Usartza Txistulari Bandakuak Aratostietako kalejira hasiko dabe. Eta arratsaldeko 17:00etan ...eta kitto! Euskara Elkartiak antolatzen dabene umiendako playback lehiaketia hasiko da Untzagako karpan, DJ Arnok girotuta.



Barixaku Erregularreko gabian kontzertua eskinduko dabe "Los chivatos de Ana Frank" taldekuak.

Eta jaixen azken egunian, Aratoste Martitzenian, arratsaldeko 17:00etatik 18:30xetara Untzaga plazan umiendako jolasak egingo dira, Astixaren eskutik. Jarraixan, sardiñaren entieru txikixa egingo da, trikitilarixak lagunduta, eta 19:00etatik aurrera umiendako diskotekia bihurtuko dabe karpa Arima Cool Tour taldekuak.

Eta, horrekin batera, Untzagako jubilau etxeakuak be Aratostiak ospatuko dittue, 19:15etan hasiko dan dantzaldixarekin. Gaiñera, koko-jantzi oneneri sarixa emongo detse.

Eguen Zuri Argazki Lehiaketia

Arrate Kultur Elkarteak XXII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketia antolatu dau aurten be. Lehiaketarako gaixa Aratostiak da eta, hortaz, gai horrekin zerikusixa daken argazkixekin hartu leike parte. Antolatzailliak argi laga nahi dabe argazkixak ez dirala derri-

gor Eibarko Aratostietakuak edo Eguen Zurikoak izan bihar, beste toki batzuetan etaratakuak be balixo dabela.

Lehiaketia parte hartu nahi dabene guztiendako zabalik dago eta zuri-baltzian zein koloretan egindako argazkixak aurkeztu leikez. Egille bakotxak gehixen jota hiru lanekin lehiatzeko aukeria izango dau eta irudixak JPG formatuan egon bihar dira (fitxategixak ezin dittu 6 Mb baiño gehixago euki)- Lehiaketarako argazkixak emaillez jasoko dittue, eguenzuri2019@gmail.com helbidian, martxuaren 15era arte. Argazkixekin batera, egilliaren datuak (izenabizenak, NAN, helbidia, telefono zenbakixa, e-maila eta argazkixaren zenbakixa eta izenburua) bialdu biharko dira. Bestalde, fitxategixaren izena argazkixak dakan zenbakixarekin hasi biharko da eta argazkixaren izenburuarekin jarraitu (adibidez 1_Muskerra.jpg).

Jasotako argazki guztien artian, epaimahaixak 20 aukeratuko dittu eta horren artian hiru sarituko dittue: argazki onenari 160 euro emongo detsez, bigarrenari 100 eta hirugarrenari 60. Sarixak banatzeko ekitaldixa martxuaren 29xan, 19:00etan egingo dabe Topalekuan, erakusketia zabaltziarekin batera. Informaziño gehixago nahi izanez gero Arrate Kultur Elkartearen buleguan galdetu, 638-284912 telefono zenbakira deittu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi.



Umiendako playback lehiaketia domeka arratsaldian egingo da karpan.

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

San Andres Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak etxera**

Bidebarrieta, 28
% 943 20 79 73

Marcos Sotes, Sonia Barajas, Garazi Irisarri eta Maria Beraza:

“Produktuak nola saldu ikasi dugu”

Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuak talde bi eraman zituen Ikasapresa azokara: ‘Azitain gozokiak’ eta ‘Herensugeak’. Marcos Sotes eta Sonia Barajas lehen taldeko kideak dira, eta Garazi Irisarri eta Maria Beraza bigarrenekoak. Enpresa bat izango balira bezala jardun zuten azokan, “jolas bat izan zen”, eta euren jakiak saldu zituzten. Elikagaiak erosteak zenbat balio duen, prestatzeak zenbat kostatzen duen eta ekoiztutako produktuek zein prezioa izan behar duten ikasi dute.

- Zer moduz ikasapresa azokan?

GARAZI: Oso ondo egon zen. Jende egon zen eta gure postura ere etorri ziren batzuk.

MARIA: Nire iritziz ondo egon zen, baina iaz hobeto.

GARAZI: Ba niri aurren jende gehiago egon dela iruditzen zait. Gainera, beste karpak bat gehiago jarri zuten.

SONIA: Guretzat lehen urtea izan da eta pozik egon ginen azokan.

MARCOS: Prestatutako guztia saldu genuen.

- Zer eskaini zenuten?

GARAZI: Beste herrialde batzuetako janariak prestatu genituen: Kolonbia, Nikaragua, Maroko... Eta hemengo jakiak ere egin genituen: krotetak, haragi-bolak...

MARIA: Guk bizkotxoak, Azkoitiko makarroiak, kokozko bolak, sanblasak eta erroskillak eskaini genituen.

- Azokan saldutakoarekin dirua irabazi zenuten?

MARCOS: Asko ez.

GARAZI: laz gozokiak egin genituen eta guztiak saldu genituen. Gozokiak merkeagoak izaten dira, deigarriagoak, eta gehiago saltzen dira. Haragi-bolak eta horrelako jakiak ez dira hain erraz saltzen.

- Zuen helburuak bete zenituzten?

GUZTIEK: Bai!

GARAZI: Gainera beste postu batzuk ikusteko aukera eduki genuen, beste ikasleek aurkezten zituzten proiektuak, eta hori oso ondo dago. Askotariko proiektuak ikusi ge-

Ezkerretik eskumara, Beraza, Irisarri, Sotes eta Baroja.



nituen eta galdezka ibili ginen. Bigarren mailakoentzat baliagarria izan zen, datoren ikasturtean zer ikasi nahi dugun pentsatzeko batez ere.

- Zenbat denbora behar izan duzue azokako prestatzeko?

MARIA: Guk ez hainbeste. Azoka eguenean egin bazen, astelehenean prestatu genituen jakiak. Produktu freskoa aurkeztu behar genuen, beraz, ezin genuen lehenago prestatu. Gero, denboraz nahiko justu ibili ginen.

GARAZI: Astebete lehenago probak egiten ibili ginen. Bestetik, irakasleen laguntza izan genuen janariaren prezioak zehazteko.

- Zer ikasi duzue esperientzia honetatik?

GARAZI: Bezeroarentzako arreta nola egin. Baten bat gure postura etortzen bazen, guk produktuen berri eman behar genien.

SONIA: Produktuak nola saldu ikasi dugu, azken finean.

MARIA: Eta lotsa kentzea!

- Proiektu hauekin aurrera jarraituko duzue?

GARAZI: Guk praktikak hasiko ditugu hila-bete barru, beraz, ez dugu proiektuarekin jarraituko.

SONIA: Guk ere proiektua amaitu dugu eta datorren urtean beste berri bat egingo dugu Ikasapresa azokara begira.



IGNACIO ARANBARRI AIZPURUA (2019-11-25)

**“Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa”
EZ ZAITUGU SEKULA INOIZ AHAZTUKO.**

BEHARTSUAZ SOZIEDADEKO BAZKIDEAK



Eibar eta Alemaniako ikasle-trukea UNI Eibar-Ermua institutuan

AURREKO ASTEAN, OTSAILAREN 20-AN, HELDU ZIREN EIBARKO HEZKUNTZA ESPARRURA ALEMANIAKO 30 IKASLE. Astebete pasa dute UNI Eibar-Ermuako Batxillergoko 1. mailako ikasleen etxeetan. 7 egun izan dira, baina egonaldia "oso motza egin zaie". Eguraldia lagun izan dute, eta primeran pasa dute Donostia, Bilbo, Gasteiz, Gernika eta Gaztelugatxe ingurura egindako irteeretan. Ez dira geldirik egon, eta hemen egindako lagunekin une ahaztezinak pasa dituzte. Asteburua tartean izanik, hemengo gazteek aisialdian egiten dituzten gauzak ezagutzeko eta egiteko aukera izan dute. Eibar eta Ermuko familientzako ere esperientzia berria izan da. Elkartrukean parte hartzen duten ikasleen etxekoek bisitan etorritako ikasle atzerritarra ahalik eta erosoan egoteko ahalegin berezia egiten dute, "egun horietan beste seme-alaba bat gehiago izaten dugu etxean, horrek dakarren guztiarekin. Esperientzia moduan oso ondo dago, guztiz gomendagarria da". Hiru aste barru berriro elkarrekin egoteko aukera izango dute. Izan ere, martxoaren 20an UNIKo Eibarko eta Ermuko ikasleek aste-



bete igaroko dute Alemanian, Baden-Württemberg estatuan kokatuta dagoen Albstadt udalerrian. Hara joateko irrikitan dau-

de, "hizkuntza, ohiturak eta batez ere esperientzia ahaztezinak elkartrukatzea beti aberasgarria izaten delako".

Gazttxef lehiaketarako izen-ematea zabalik dago



Zer moduz moldatzen zarete sukaldean? On-do? Hala moduz? Lasai, oraintxe daukazue eta nolako sukaldariak zareten erakusteko aukera. Izan ere, aurreko urteetan horren arrakastatsua izan den Gazttxef lehiaketaren edizio berria, bosgarrena jokatu da Indianokua gaztelekuan aurten ere. Parte hartu nahi dutenek hiru edo lau lagunekin taldea osatu eta izena eman beharko dute, Indianokuan bertan. Izen-ematea doan izango da eta epea martxoaren 10era arte egongo da zabalik. Informazio gehiago nahi izanez gero Indianokua gaztelekuan galdetu edo, bestela, 688682372 telefonora deitu.



ITZIAR OLAIZOLA LOYOLA

(2019-11-24)



Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez.
Ez ditugu inoiz ahaztuko
izan dituzun ilusioa eta bizipoza.





ARATOSTEETAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Astekari honetan publizitatea ipini duten tabernaren batean (edo gehiagotan) argazkia egin eta gurekin partekatu, **ARATOSTE MARTITZENA (martxoak 5) BAINO LEHEN**. Parte hartzen duzuen guztien artean zozketa egingo dugu irabazlea aukeratzeko. Hauek dira iragarkia ipini duten tabernak:

PARTE HARTZEKO

Instagram bidez:

- 1- @gaztekitto Instagram kontuaren jarraitzaile izan.
- 2- Aldizkarian iragarkia ipini duten tabernaren batean argazkia atera (bakarrik, lagunekin...) eta Instagramera igo, #aratosteaketakitto traola erabiliz.
- 3- @gaztekitto etiketatu.

- | | |
|----------------|----------------|
| ✓ Ametsa | ✓ Guridi |
| ✓ Arkupe | ✓ Hirurok |
| ✓ Beleko | ✓ Katu Kale |
| ✓ Bossa | ✓ Kultu |
| ✓ Buenos Aires | ✓ Laurel&Hardy |
| ✓ Duran Duran | ✓ Su Beroa |
| ✓ Ez Dok | ✓ Trinkete |
| ✓ Gastro Gilda | ✓ Txoko |

Edo e-mailez,

argazkia erredakzioa@etakitto.eus helbidera bidalita.



ARATOSTIETAKO



GIRORIK ONENA!!!



Trinkete
EIBAR 1957

MIMOen

ERREINUAN



TXOKO

HEMEN DUZU ZURE TXOKOA

Bikain pasatuko dugu!!!

BAR BUENOS AIRES



gazte laga gintuzten
27 urtekoen Kluba

APOSTUA

GURIDI

RUGBY

IRABAZTEKO

Frontoi paregabea

erremate guztiak TANTO

Kultö:



Benetako karnabalak



MATADOR

DOS PUNTO CERO



Laurel & Hardy Pub

GUREKIN giroa ziurtatuta dagol

Be **led** ko



Su Beroa

Bista Eder, 11 bajo
20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 47 77 79
Suberoatarbena@gmail.com



3 hirurok

EL PROCÈS

*Aukera baten faltan,
hiru ezinhobeak zure zain*

2019ko uztailaren 1ean EuskarAbentura espedizioa osatuko dute 150 lagunek – 16-17 urte bitarteko 120 gazte eta 30 helduz osatutako lan-taldea. Maulen batuko dira abenturari hasiera emateko. Done Jakue bide desberdinak jarraituz Euskal Herria zeharkatuko dute, hiriburu guztiak eta UNESKOk izendatutako Gizateriaren Ondareak bisitatu. Getxo izango dute helmuga, uztailaren 31n. laz martxan jarritako eta aurtengo udan errepikatu egingo den proiektuaren berri emango dute Imanol Zabaleta eta Irati Labaien EuskarAbentura elkarteko kideek martxoaren 12an Portalean izango den Euskararen Transmisioari buruzko Mintegian. **IRATI LABAIENek aurerapen bat egin digu.**



Argazkian dauden Irati Labaien (arrosaz) eta Imanol Zabaleta Euskeraren transmisioari buruzko mintegian izango dira martxoaren 12an, EuskarAbentura proiektuaren ezaugarriak eta klabeak azaltzen.

“EuskarAbenturaren asmoak gazteen artean euskara sustatzea eta kontzientzia soziala piztea dira”

- Zer da EuskarAbentura? Zer egin behar dute parte hartu nahi duten gazteek?

EuskarAbentura Euskal Herriko herrialde, hiriburu eta Gizateriaren Ondare guztietatik oinez igaroko den espedizio gaztea da. Aurtentzen 16 eta 17 urte egingo dituzten gazte euskaldunentzat da, 2002 eta 2003 urteetan jaiotakoentzat. Guztira 120 lagun aukeratu ditugu, iaz baino 10 gehiago. Parte hartzeko gazte bakoitzak lan bat eta motibazio gutun bat egin beharko du (guztia euskarabentura.eus webgunean azalduta dago eta izen-ematea bertan egin daiteke martxoaren 10a baino lehen). Eusko Ikaskuntzak zuzentzen ditu lanak. Lan onenak egiten dituzten horiek izango dira aukeratuak. Beka bat irabaziko dute. Beraz, ez dute ezer ordainduko. Horretaz aparte lurralde guztiatako jendea egongo dela bermatu nahi dugu, eta neska zein mutilak neurri berean edo oso antzerakoan izango ditugula.

- Zeintzuk dira helburuak?

Lau ardatz dira nagusi. Lehenik eta behin, izenak esaten duen moduan, gure xedea euskeraren erabilera sustatzea da. Horrez gain, gazte euskaldunen artean sare bat sortzeko helburua dago: errealitate linguistiko desberdinetatik datozenak, oso euskaldunak eta hain euskaldunak ez diren inguruetako jendea batzen ahalegintzen gara. Hirugarren helburua Euskal Herriaren eza-

gutza da (historia, kultura, geografia, gizateriaren ondareak...). Eta, azkenik, baloreak lantzen ditugu. Elkarrekin hilabetea ematen dugu. Harremana oso estua da eta lantzen ditugun edukietan ingurumenarekiko errespetua, zaborraren kudeaketa egokia, turismo arduratsua eta elkarbizitza bezalako baloreak lantzen ditugu. Kontzientzia soziala sartzen saiatzen gara.

- Zenbat kilometro egingo dituzue?

Guztira 783 kilometro dira. Aurreko urtean, kilometro horietatik 500 inguru egin ziren oinez. Etapa bakoitza desberdina da, batzuk gogorragoak dira. Egutero 4 edo 5 ordu ematen ditugu ibiltzen. Guztiaren gainetik, jakina, segurtasuna dago. Batzuetan, eguraldia dela eta, etapa bertan behera utzi behar izaten da eta autobusak alokatu. Mauletik Donibane Garazira joango gara eta hortik Nafarroan sartuko gara. Hor dena lautada da, paisaia lehorrakoa da. Nafarroa zeharkatu ondoren autobusez Errioxara pasatuko gara, San Millan de la Cogollako monastegia ikusteko. Handik Añanako gatzagatara joango gara. Gasteiztik pasa, Agurain eta Zerain aldetik Gipuzkoara pasatuko gara, Ormaiztegi, Tolosa, Hernani eta Irunerako bidea eginez. Handik Baionara eta gero, pixkanaka, Gipuzkoako eta Bizkaiko kosta guztia egingo dugu, Getxoraino. Mendia, lautada, kosta... denetik dago. Etapa guz-

tiak milimetrora neurtzen nituen taldekide aditua daukagu. Hamaika kontu ikasteko aukera izango dugu: iparraldeko laborarrietatik hasiz, Nafarroako karlisten museoa bisitatu, Añanako Gatzagak dastatu, Zeraingo meategietan burdinaren historia ikusiz, Eusko monetarekin salerosiz, Irun eta Hendaiaiko mugan aspaldian emandako kontrabandoa deskubrituz, edota Gernikako Juntetxeko haritz zahararen sinbologiari erreparatu. Eta bidean lurralde bakoitzeko euskararen errealitatera hurbiltzeko parada ere izan dugu.

- Nola ekin zenioten proiektuari?

Proiektuaren helburuak zehaztuta, hutsetik ekin genion EuskarAbentura Espedizioaren prestaketari; eta hasiera guztien moduan, ez zen lan makala izan. Hasteko, ezezagunak ginen jendartean, eta bereziki ezezagunak ginen euskalgintzako erakundeen artean. Proiektua aurrera eramateko sosik ez genuen, beraz, esku artean geneukana proiektuaren potentziala eta taldeko kideen curriculum vitaeak ziren, besterik ez (elkarrekin 10 lagun gaude). Hau guztia aurrera eramateko ezinbestekoa dugu erakunde publiko zein pribatuaren babesa. Horrez gain, antolaketa lanetan eta baita espedizioan zehar ere, iaz lagun mordoa izan genituen bidaide, musutruk eta beti irribarre batekin gurekin lanean aritu zirenak.

Deporreko squash jokalarien arteko finala Federazio Kopan

Eibarko Klub Deportiboko Alberto Ferreirok eta Sergio Salgadok jokatu zuten Kantabriako Astillero herrian lehia izan zen Federazio Koparen finala. Eurenkin izan zen Miguel Cabanillas taldekide beteranoa ere; azken honek lehenengo partidua galdu bazuen ere, koadro printzipalaren kontsolazioa jokatu zuen eta finalerdietara heldu zen, hor Ignacio Rodriguez serie-buruarekin galtzeko. Txapelketari begira, Ferreirok erraz irabazi zituen aurreko partidua eta, behin fina-

lerdietan, bost urtetan Euskadiko txapel-dun izan den Victor Mendoza garaitu zuen, aurkaria min hartuta erretiratu zelako. Salgadok, bestalde, hainbat partiduko pilota gaintitu behar izan zituen finalera heltzeko. Horrek eragina izan zuen finalean eta Alberto Ferreirok ondo aprobetxatu zuen Sergio Salgadok aurreko partiduetan bildutako nekea taldekideari 3-0 irabazteko. Ferreiro, beraz, beste txapel batekin bueltatu zen etxera, oraingon Federazio Kopakoarekin.



Mungian parte hartu zuen Deltecoko laukotea.

Pello Osoro garaile Kantabrian Espainiako distantzia erdiko duatloien bezperan

Gure herriko duatloi eta triatloi taldeko ordezkariak hitzordu bi izan zituzten aurreko asteburuan. Euretako batean, Kantabriako Galizano herrian jokatutako duatloian, Pello Osorok erakutsi zuen prest dagoela Sorian jokatuko den distantzia erdiko Espainiako duatloi txapelketarako eta nagusi izan zen proban. Antxitxiketan sei kilometro egin ondoren, drafting gabeko 33 kilometroko bizikleta tartean lortu zuen alde handiena,

gero antxitxiketan egin beharreko beste hiru kilometroetan abantailari eusteko. Mungian, bestalde, duatloi denboraldiko bigarren proba jokatu zen eta Deltecoko ordezkariak honako postuetan amaitu zuten: Cristina Ruiz 18. izan zen sailkapen orokorrean (zazpigarren beterano 1ean), Pello Berrizbeitiak 37. amaitu zuen, Roberto Gartziak 64. (15. beterano 1ean) eta Alex Higuera 78. (hirugarren 23 urtetik azpikoaren artean).

Waterpoloko jubenil mailako taldeak denboraldiko partidu guztiak irabazi ditu

Azken asteburuan, gainera, talde bakarra izan zen Urbat-Urkotronik-eko ordezkarien artean garaile iritetzen. Orbeako igerilekuan jokatutako neurketan 16-6 nagusitu zitzaion Gasteizko Lautada taldeari. Euskal Herriko 1. Mailan jokatzen duten senior mailako lehen taldeentzat, bestalde, ez zen asteburu onena izan, talde biek galdu zutelako lehen aldiz asteburu berean: gizonenak 11-9 amore eman zuen WP Navarraren aurrean, azken laurdeneraino markagailuan aurretik joan eta gero; emakumezkoenak Orbean galdu zuen CW 9802 taldearekin hiru golengatik (9-12).



Ehundik gora txirrindularik hartu zuten parte 41. Udaberri Sarian

111 mutil eta neska bakarra izan ziren Untzagako irteera puntuan junior mailako lasterketari aurre egiteko. Eguraldia lagun izan zuten, baina hala ere istripu bat baino gehiago gertatu zen aurreko domekako lasterketan. Lizarte taldeko Diego Uriarte izan zen lehena T. Etxebarria kaleko helmugan (ordubete, 58'28") eta 50 segundora sar-

tu ziren Naviaga360-ko Lander Lartitegi eta Atracciones Sanz taldeko Alex Uranga. Uriarte irabazleak mendia eta erregularitasun sariak ere bereganatu zituen eta Atracciones Sanz-endako izan zen taldekako sailkapena. Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako proban Gastronomia Baskako Iker Mancebo izan zen Debarreneko onena.

Herriko xakelariak bikain Gipuzkoako eskolarteko txapelketan

Azken bi domeketan, otsailaren 17an eta 24an, Eibarko Klub Deportiboan gure zonaldeari dagokion Gipuzkoako Eskolarteko txapelketaren jardunaldiak jokatu ondoren, Eibarko xakelariak egindako progresioa erakutsi dute eta, benjaminetan esaterako, lehenengo hiru postuak bereganatu dituzte: Aimar Garcia (La Salle Isasi) izan da nagusi eta bigarren postuan berdin-

duta amaitu dute Juan Antonio Mogel ikastolako Xuban Varonak eta Aldatzeko Ze Hao Ye-k. Nagusien mailan, Aritz Tornay arrasatearra izan da nagusi bi egunetan jokatutako partida guztiak irabazita; Elgoibarko Beñat Cearsolo sailkatu da atzetik eta hirugarren postuan berdinduta amaitu dute Eibarko Aldatze ikastetxeko Yu Xuan Ye eta Malen Etxeberria ikasleek.



Partidak amaituta, sari banaketa-ekitaldia egin zen Deporren.

Mendiko eski-irteera antolatu du Deporrek martxoaren 9-10erako



Iaz egindako irteera bateko irudia.

Datorren asteko asteburuan mendiko eski-irteera egingo dute Klub Deportibokoek. Candanchu hartuko dute lo egiteko eta handik eguneko irteerak prestatuko dituzte, "eguraldiaren arabera". Zapatuan Astunetik irten eta Arnousseko lepora igotzeko asmoa dute, "Frantzia aldera jaitsi eta gero Bénouko lepotik igota, zirkularra burutzeko". Domekan, bestalde, Acué igoko dute "Forges d'Abel-etik irtenda". Informazio gehiago Deporrek bulegoetan jaso dezakezue (martitzen eta egunetan,

19:30-20:30) edota 943-201904 telefono zenbakira deituta.

Domeka horretan, bestalde, Gipuzkoako eskualdetan egingo den **Eskolarteko Ibilaldi Neur-tuen** jardunaldiaren barruan, Debabarrenekoa Eibarko Klub Deportiboari dagokio antolatzea. Ibilbidea Arrate-Kalamua-Arrate izango da eta bi aukera eskainiko ditu, 10 kilometrokoa bata eta 8koa bestea. Irunen, Tolosan, Zumaiian eta Beasainen egingo dira probintziako beste Eskolarteko Ibilaldiak.

Carlitou Mendik zilarrezkoa lortu zuen Espainiakoetan

Klub Deportiboko ordezkaria bigarren sailkatu zen Castellon jokatutako 18 urtetik beherakoen neguko jaurtiketa luzeen Espainiako txapelketan. Mendi 54'90 metroraingo heldu zen eta Mikel Martinez 51,65ekin seigarren postuan geratu zen. Anoetako belodromoan, bestalde, 16, 18 eta 20 urtetik azpiko Euskadiko txapelketak izan ziren jokoan eta hor Deporrek bost dominekin etorri ziren etxera. Lau urrezkoak izan ziren: Imanol

Egidazuk 60 metro hesietan eta pisu jaurtiketan lortu zituen, Aratz Morak pisuarekin eta Nora Zabalak pertikarekin (azken honek zilarra eskuratu zuen jautzi hirukoitzean). Aurrekoiez gain, Jone de Castro hirugarren izan zen xabalinarekin Iruñan jokatutako Euskadiko neguko txapelketetan eta Julen Teranek Caceresen hartu zuen parte 23 urtetik azpiko euskal selekzioarekin Espainiako kros txapelketan.



Eibar Igerixan-eko hiru igerilariak Edu Lopez Reta prestatzailearekin.

Eibar Igerixan-ekoak bikain infantil mailako Euskal Herrikoan

Aurreko zapatuan eta domekan Galdakaoko Urreta kiroldegian jokatutako infantil mailako Euskal Herriko neguko txapelketan Eibar Igerixanek bost dominekin bueltatu ziren hiru ordezkari izan zituen: 2005ean jaiotako Miren Galdosek urrezko domina lortu zuen 100 metro librean, zilarrezkoa 800 estilo librean eta brontzea 100 bizkarrean. 2004ko Paula Gabilondok brontzezko domina eskuratu zuen 100 eta 200 metrotako bular probetan. Eta Kai Zubiaurrek (2003an jaiotakoa), podiumera igo ez arren, marka pertsonalak hobetu zituen. Aurrera begirako urratsak, beraz, hiruren kasuan.

Avia Eibar Rugbyko emakumezkoen bigarren taldeak hiruko Pottokan debutatu zuten

Gure herriko emakumezkoen errugbi taldeak aurrera egin du azken aldian eta, gaur egun dituen federatutako 38 jokalarirekin, bigarren taldea osatzea erabaki dute. Euretako guztiek debutatu dute dagoeneko Euskal Ligan eta horrek asko lagunduko die errendimendu handiagoa emateko Euskal Ligako bigarren fasean. Aurreko zapatuan Hernanin jokaturako Pottoka txapelketa hirukoan debutatu zuten aipaturako taldeak, Hernani eta Biarritz aurkari zutela. Etxeko taldeak irabazi zuten torneoa, Iparraldekoa bigarren sailakatu zen eta eibartarrak oraingoan hirugarren amaitu zuten.



Bestalde, Euskal erregionalean jokatzeko duen Avia Eibar Rugbyren bigarren taldeak aurreko zapatuan jokatu zuten ligako azken jardunaldia, Gaztediren aurka azkenean 34-17 galdutako partiduan. Atsedendira 15-10-ekoa erakusten zuten marka-

gailuarekin heldu ziren. Bigarren zatia indartsu hasi zuten eibaartarrek eta baita aurrea hartu ere (Jon Curielek gauzaturako Iker Narbalezaren entseguari esker). Azken minutuak, dena dela, gehiegizkoak izan ziren eibartarrentzat.

Erregionaleko Urki igoera faserako sailkatu da

Azken jardunaldian Bergarari 0-4 irabazita amaitu du Urki klubeko lehen taldeak ligako lehen fasea eta, azken unera arte lehen postuaren borrokan izan bada ere, azkenean bigarren postuarekin konformatu behar izan da. Orain sei taldeen artean jokatu den bigarren faseari ekingo dio, igoeraren bila, lehenengoko bi postuetako baten bila. Bihar Usurbilen

16:30ean hasiko dute eibartarrek fase hori.



Erregionaleko Urki bigarren sailkatu da ligan eta igoerako fasea jkatuko du orain.

Zazpi domina Kalamuako ordezkarietzat Gipuzkoako senior mailako judo txapelketetan

Aurreko zapatuan Tolosako Usabal kiroldegian jokaturako senior mailako judo Gipuzkoako txapelketetan, Kalamuako ordezkariak bikain jardun zuten eta zazpi dominekin itzuli ziren Eibarrera: Nekane Muguruza, Jonatan Garcia eta Jonatan Terronek urrezkoa lortu zuten, Iker Martinez eta Ander Fernandezek zilarrezkoa, eta Ernesto Arabiarrutia eta Asier Slavak bronzetza. Finala jokatu zuten bost ordezka-

riak estatu mailako finaletan izango dira martxoaren 16an eta 17an.

Domekan Getariako kiroldegian jokaturako alebin mailako Gipuzkoako txapelketetan, bestalde, Kalamuak bi ordezkari izan zituen. 47 kilotik beherako mailan jardun zuten biek eta Eneko Kortak urrezkoa irabazi zuten, egindako sei borrokak ippon bidez irabazi eta gero. Alex Jimenez 9. postuan sailkatu zen.

ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Eibar - Celta (etzi, 12:00)

Emakumezkoen 2. Maila

Eibar - Athletic B (bihar, 16:00)

2. B Maila

Vitoria - Leioa (etzi, 17:00)

Emakumeen Ohorezko Erregional Maila

Goierri Gorri - Eibar (bihar, 16:00)

Ohorezko Erregional Maila

Hondarribia - Eibar (bihar, 11:30)

1. Erregionala

Usurbil - Urki (bihar, 16:30)

Arizmendi - Eibartarrak (bihar, 09:45)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Eibar - Danok Bat (bihar, 13:45)

Euskal Liga

Eibar B - Deustu (bihar, 18:00)

KADETEAK

Euskal Liga

Athletic Club - Eibar (bihar, 12:30)

FOBALL-ZALETUA

Azkena Adahi - Larragest (bihar, 09:00)

Slow XOK - La Jara (bihar, 10:30)

JMR Erreformak - Feredu (bihar, 12:00)

Bar Areto - Los Paisanos (etzi, 09:00)

Garajes Garcia - Ipur Sagard. (etzi, 09:00)

Durango - Chic (etzi, 10:30)

ESKUBALOIA

1. Nazional Maila

Alcorta Elgoi. - Somos Eibar (bihar, 19:30)

Gipuzkoako 1. Maila

Egia Kosko - Haritza (bihar, 20:15)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

Avia Eibar - Ourense (etzi, 12:00)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

CD Bilbao - Urbat IKE (bihar, 15:00)

Emakumeen Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - Claret Askartza (etzi, 16:30)

KIROL-AGENDA OSOA
etakitto.eus HELBIDEAN

*asteburuko emaitza guztiak
astelohen goizerako*





FERNANDO RETOLAZA: Koko-dantzak eta koko-eskea Otaola-Kiñarraga auzoko baserrietan (2019-II-23).

Martitzenean aurkeztu zuten “Emariak, emakumeek historian zehar egin dituzten ekarpenen bilduma” izenburuko liburua Topalekuan Ilazki Gainza eta Nerea Urian lanaren egileek. Emakumeek historian zehar izan dituzten ekarpenen bilduma osatu dute liburuan: 12 emakumeren biografia laburrak bildu eta ilustrazio bidez lagundu dituzte. Liburuaren aurkezpena egitearekin batera, lanaren inguruko erakusketa zabaldu zuten. Martxoaren 8ra arte egongo da ikustera joateko aukera.



NEREA URIA eta ILAZKI GAINZA:

“Ez gara konturatzen, baina zaintza barik ezingo ginateke bizi”

- *Nolatan sortu duzue “Emariak” liburua?*

Gu Kalaka moduan sortu ginenetik kooperatiba txiki bat gara eta hasieratik oinarrian bi ardatz izan ditugu: komunikazioa eta feminismoa. Lau urte bete ditugu aurten eta bezeroek eskatzen dizkiguten lanetan ikuspegi hori txertatzen beti ahalegindu bagara ere, zuzenean hori lantzen ibili eta gero, emaitza aurten atera dugun liburua izan da. Genero berdintasuna eta horren inguruko sentsibilizazioa lantzeko materialarekin osatutako lana da, zehazki emakume erreferenteen hutsunea identifikatu genuen eta hori landu dugu.

- *Sarritan entzuten dugu liburu eta bestelakoetan emakumeak gizonetako baino askoz gutxiago agertzen direla eta zuen arabera gizonen presentzia %75ekoa da...*

Liburuetan, filmeetan eta denean gertatzen da hori. Eta ez da idatzi gizonak bakarrik idazten dutelako, edo ikertu bakarrik gizonak ikertzen dutelako, baizik eta emakumeen ekarpen horiek ixilarazi, zapaldu eta alboratu egiten direlako. Orain testu liburuak ikertzen dihardugu eta horietan ere zorritzarrez horrelako datuak atera daitezke.

- *Horrelako alde handia ez da kasualitatearen ondorioa izango ba.*

Gainera ez du esan nahi emakumeak agertzen diren %25 horretan emakumeak protagonista direnik, askotan ere bigarren mailako pertsonaia modura azaltzen dira, ez ekarpen bat egin dutelako edo izaera propioa dutelako. Adibidez, gure liburuan ager-

tzen den emakumeetako bat Alice Guy zinezuzendaria da. Bere lanak bildu nahi izan zituenean, pelikula guztiak zeuden bere lan-kide izandako gizonen baten izenean. Hor badago pertsona horrek egindako lan guztia ixildu eta zapaltzeko ekintza bat.

- *Zeren arabera aukeratu dituzue liburuan agertzen diren emakume horiek?*

Lehentasunak ezarri behar izan ditugu. Hasteko, lehenetsi dugu ezezagunak izatea, zorionez badaudelako ezagunak diren beste asko. Beste irizpide bat izan da Euskal Herrikoak eta nazioartekoak uztartzea. Eta beste bat lurralde eta garai ezberdinetakoak izatea. Bestalde, izen propio horietatik haratago feminismoa kolektiboa ere bada. Horregatik bi kolektibo esanguratsu ekarri ditugu liburuan. Batetik etxean lan egiten duten emakume guztiak eta bestetik sufragisten kolektiboa. Eta ahalegindu gara maskulinizatuta dauden alorretako emakumeak topatzen, injeniaritzan, kimikan, zinean...


- *Nola jaso duzue etxe barruan emakumeek egiten duten lana?*

Hausnarketatik abiatu gara. Hitzaurrea eta lehen biografia euren da. Historian zehar herrialde, garai desberdinetan beti hor egon diren emakumeak izan direlako, gizonak ez dutelako horrelako lanik egin eta baztertu behar izan dituztelako bere amets, proiektu eta bestelakoak giza eskubide oinarrikoena, hau da, zaintza ziurtatzeko. Ez gara konturatzen baina zaintza barik ezingo ginateke bizi, azkenean jateko erosketa batzuk egin behar dira, janaria prestatu egin

behar da eta horiek ez dira bakarrik egiten. Ekonomikoki zein sozialki baloratzen ez diren lanak dira eta horrela gure omenalditxoak egin nahi izan diegu.

- *Zergatik da horren garrantzitsua emakume erreferenteak izatea?*

Azken batean bizitzako edozein alorrean gizon eta emakume erreferenteak kopuru aldetik berdintsuak izanez gero, norberak txikitatik bata edo bestea ez da gutxiesten. Baina eskolan jasotzen denaren %75 bakarrik gizonetakoak badira, normala da gutxiengo diren emakumeak gutxiesten eta, gainera, gizonak sentitzea gehiago direla, hala transmititu dutelako. Horregatik da garrantzitsua partekatzea eta baloratzea emakumeek egin dituzten gauzak, egin dituztelako eta ez ditugulako ezagutzen. Elkarren arteko tratua osasuntsuagoa litzateke horrela. Orain dela aste batzuk lauzpabost urteko neska batek Ingalaterran amari mutila izan nahi zuela esan zion eta, zergatik galdetu zionean, neska erantzun zion suhiltzaile izan nahi zuelako. Hori ez da bera mutil sentitzen delako, baizik eta berak helburu moduan duen lan horretan ez duelako emakumerik irudikatzen, erreferenterik ez duelako. Albistea zabalitzearekin batera kanpaina bat abiatu zen eta mundu osoko emakume suhiltzaileek neska horri idatzi zioten, erakusteko neska izanda ere posible dela suhiltzaile izatea. Adibide horretan ikusten da erreferenteak izatearen garrantzia.



JOANES URKIXO
(idazlea)

“Literatura bazterrean ezin nuela utzi erabaki dut”

‘Idazlearekin Harixa Emoten’ irakurle taldearen martxoko saioak Joanes Urkixo ekarriko du Portalera hilaren 5ean 19:00etan. Idazle bizkaitarraren ‘Ekaitza urrun’ liburua izango da mintzagai eta Urkixori galderak edo iruzkinak egiteko aukera egongo da. Urkixo gidoigintzan dihardu lanean buru-belarri, baina ez du literatura albo batera utzi nahi eta eleberri historikoa landu du ‘Ekaitza urrun’ liburuan.

-‘Ekaitza urrun’ eleberri historikoa da. Kasu honetan non dago fikzioaren eta errealitatearen arteko muga?

Istoriok errealitatean oinarritzen den ardatz nagusia du eta egitura narratiboari begiratura hutsuneak batu ditut bestelako fikziozko tramak osatuz. Oro har, liburuan azaltzen diren gertaera publikoak gertaera historikoak dira. Gertaera pribatueta, bestetik, asmakizunetan ibili naiz kasu batzuetan, dokumentatuta ez daudelako.

- Wilhelm Wakonigg da liburuko beste pertsonaia bat. Nor izan zen?

XIX. mende amaieran gaur egungo Eslovenian jaio zen Wakonigg, sasoi hartako Austria-Hungariako inperioan. Alemaniara joan zen ikastera eta lanera, eta handik Bilbora etorri zen Alemaniako enpresa baten bidez. Gero independizatu, ezkondu, familia egin eta bilbotartu egin zen. I. Mundu Gerran Austria-Hungariako inperioaren kontsula izan zen Bilbon, eta hurreman komertzial eta pertsonal asko egin zituen alde batean zein bestean: nazionalistak, monarkikoak... I. Mundu Gerraren ondoren Austriako nazionalitateari eutsi zion eta III. Reicha sortu zenean germanofilo bihurtu zen eta, hori ezezik, Hitlerren zalea ere bai. Espainian altxamendua gertatu zenean altxatuen alde egin zuen eta uste zuen EAJ-k oker handia egin zuela Errepublikaren alde eginda, ez zitzaion hori buruan sartzen eta bere pentsamoldea dokumentatuta dago. Gerra Zibila lehen-

bailehen amaitzea nahi zuen, Bilbori kalte handia egin ziolako eta sasoi bateko oparotasuna berreskuratu nahi zuelako. Gerra amaitzeko Bilboren errendizioa lortzea berebizikoa zela uste zuen eta horretarako matxinatu zen.

- Hainbat urteren ondoren literaturara itzuli zara liburu honekin. Zerk bultzatu zaitu liburu idaztera?

Literatura ez dut inoiz utzi. Argitaratu gabe egon naiz, baina idazten bai. Gazteleaz gauza pare bat idatzi ditut, baina gazteleazko literatura oso mundu zaila da eta ez dut argitaratzea lortu. Ondoren beste eten bat eduki dut eta amaieran erabaki dut ezin nuela literatura bazterrean utzi. Jarraitzeko beharra neukan eta istorio hau urteetatik neukan buruan.

- Eibarren irakurleekin edukiko duzu solasaldia. Nola moldatzen zara horrelakoetan?

Helduekin ez dut horrelakorik egin, baina gazteekin askotan. ‘Irakurleak ikastetxeetan’ deritzon programan ibili naiz urte askoan. Oso ondo moldatzen naiz horrelakoetan. Gidoigile bezala ere sarritan tokatzen zait nire proiektu edo istorioak aurkeztu eta defendatzea.

- Irakurleen ikuspuntua jasotzea baliagarria da zuretzat?

Jakingura apur bat sortzen dit datorren asteko bilerak. Zertan fijatu diren, zerk hunkitu dituen gehiago, teknika zein inpresio atera duten... Niretzat baliagarria da informazio hori jasotzea.

Bi zerbitzu berri ematen hasi dira liburutegian

Juan San Martin Udal Liburutegiko arduradunek jakinarazi dutenez, aurrerantzean WIFI bidez inprimatzeko eta dokumentuak eskaneatzeko aukera egongo da. Teknologia berrien eraginez, liburutegira doazen premiak zein lan egiteko moduak aldatzen joan dira eta, hori ikusita, Eibarko liburutegian sasoi berrietara egokitzeko ahalegina egiten dute. Ardura-dunen berbetan, “Liburutegian publikorako dauden ordenagailuekin dokumentuen inprimaketa berrak berrak, baina bere ordenagailuekin lan egiten dutenek USB batera edo posta elektronikora deskargatu behar dute dokumentazioa inprimatzeko zerbitzua erabiltzeko. Horregatik beste aukera bat gehitzea eskatu dugu

aurten, hau da, WIFI zerbitzuaren bidez, ordenagailu eramangarrietatik inprimatu



ahal izatea, Liburutegiko erabiltzaile direla egiaztatu dutenean. Ikasleek eskertuko duten zerbitzua izango da”. Zuri-beltzean inprimatzeagatik 0’10 euro ordaindu beharko dira eta 0’25 euro, berriz, koloretan inprimatzea nahi izanez gero.

Horrez gain, eskuratu duten eskaner berriari esker hemendik aurrera dokumentuak digitalizatu eta USB batean sartu ahal izango dira: “Horrela, zerbitzua behar duenak eskaneatutakoa inprimatzeko aukera izango du gure ordenagailuetatik edo bere ekipotik (WIFI konexioa erabiltuta). Eskaner honi elementu bat gehitu zaio, liburu edo aldizkariaren atalak eskaneatzeko eta lortutako dokumentua paperean inprimatu ahal izateko”.



The Urban Woodoo Machine domekan Portalea Musika Klubean

Taldea jaio zenetik hamarkada bat betetzen denean, The Urban Woodoo Machinek lau disko kaleratu ditu dagoeneko, euretako azkena "Hellbound Hymns". Taldea zuzenean ikusteak Nueva Orleans-era garatuta, bertako Mardi Gras, gospel, folk-blues eta rockabillyaren eragina duten zortzi musikarirekin. Classic Rock aldizkariak "Tom Waits, Nick Cave eta Dick Dale, Ennio Morriconekin batera, non stop de burlesque jardunaldiaz gozatzen duten toki zikin hori" moduan deskribatu zituen euren kontzertuak. Paul Ronney Angel-ek delta blues-ean inspiratuta antolatzen duen taldea, gypsy musika eta punk jarrera ahaztu barik.



Badator "Itsaspeko bihotzak areto literarioa" erakusketa

Datorren asteko egunean zabalduko dute Portalean "Itsaspeko bihotzak areto literarioa" erakusketa. Martxoaren 13ra arte ikusteko moduan egongo den erakusketa Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteak, Berdintasun arloak eta Udal Liburutegiak antolatu dute elkarlanean eta, aurreko urteetan bezala, asmoa genero berdintasunaren gaia lantzea da, horretarako euskerazko haur literatura erabilita. Erakusketa martitzenetik domekara bitartean zabalduko dute, 18:30etik 20:30era eta, hortik kanpora, Lehen Hezkuntzako 4. mailako haurrentzat bisita gidatuak eskainiko dituzte, alde zuzenetik ikastetxeekin lotuta.

Ederto ibili ziren Venezuelako janari tailerrea

...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen Ongi Etorri programaren barruan, eguaztenean egin zuten Munduko Janariaren inguruko hirugarren saioa, Portaleko sukaldean. Parte hartzera animatu zirenek oraingo honetan Venezuelako hainbat janari tipiko prestatu eta probatzeko aukera izan zuten.



Mendi jardunaldiak

Eibarko Klub Deportiboko Mendi Taldeak antolatuta martxoan egingo diren Mendi Jardunaldien egitarauaren barruan, martitzenean 19:00etatik aurrera Mikel Lizarralde "Esklerosi anizkoitza, kirola eta bizipoza" izenburuko hitzaldia emango du Klub Deportiboan.



Gurasoak Martxan

Gurasoak martxan

"Komunikazioa eta sare sozialak" ikastaroa emango du Baikarak, martxoaren 5ean eta 12an, Portalean. Udaleko Gizartekintza Sailak "Gurasoak Martxan" programaren barruan antolatu duen jardueraren Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan eta Bigarren Hezkuntzan dauden ikasleen gurasoei zuzendua dago eta taldeak Baikara Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioko Nekane Jacintok bideratuko ditu. Parte hartzeko derrigorrezkoa da izena ematea, bai Gizartekintzan bertan, bai ikastetxeko Guraso Elkartearen bidez.



Antzerki Jardunaldiak

ERRITU Kukai Dantza & Sharon Fridman **dantza**

MARTXOAK 6 eguaztena **20:30ean** Coliseoa

Era distiratsuan dantzatutako bakarkako eta taldeko pauso erritualez baliatuz ERRITU ikuskizunean bizi-bidaia bat egiten da gizakiok naturarekin eta komunitatearekin ditugun harremanetan zehar: jaiotzatik kaoseraino, bakardadearen desertutik pasatuz, ondoren elkartzea, maitasuna eta bukaeran



heriotza. Ikuskizun honetan aurkituko ditugu, alde batetik, oinarrizko euskal dantzen interpretazio zorrotz eta birtuosoak eta, bestetik, dantza garaikideko koreografia zoragarriak.

Sharon Fridman (2015 Max Saria) koreografo israelar ospetsuaren laguntzarekin, Kukai Dantza taldeak (2017ko Dantza Sari Nazionala) ERRITU lanarekin jarraipena ematen dio orain arte lortutako arrakastari. Ikuskizun honek Valladolideko TAC jaialdian ikuskizun berritzaile eta originalaren saria jaso izan du *errittoa eta tradizioa lengoia garaikide batean bihurtzeko duen ahalmenarengatik*.



GIZA-ESTATUAK M.P.C.

MARTXOAK 1 barixakua
17:00etan Untzaga/T. Etxebarria


keinuak



LA LUZ OSCURA
Producciones El Brujo **drama**

MARTXOAK 7 eguena
20:30ean Hezkuntza Esparrua

Nahiz eta San Juan de la Cruz-en bitzta jorratzen den ikuskizunean, benetan jorratzen eta eszenan jartzen dena bitzta bere osotasunean da, aktoreak erakusten duen indar, gogo eta gaitasunarekin ikuslea txunditzaile. El Brujoren hitzetan, *“kultura bikaina, sentsibiltate fina eta espiritu librearen konbinazio orekatua da Juan de la Cruz, munduan zehar aurrera egin zue-na argi izpiak ilunpea argitzen duen bezala”*. 1987ko martxoaren 24an Alfonso Sastreren La Taberna fantástica antzezlanaren errepresentazioa egin zuen. Aurretik, eta ondoren, *behin baino gehiagotan izan dugu Rafael Alvarez “El Brujo” gure artean*.



Batido energetikoen tailer arrakastatsua



Aurreko astean ...eta kitto! Eus-kara Elkartek antolatuta egin zen batido energetikoen inguruko tailerrera gerturatu zirenek interes handiarekin jarraitu zituzten “Itxesi” belardendako Jaione Yeregiren azalpenak eta batek baino gehiagok apunteak ere hartu zituen. Saioan, besteak beste, urtaro bakoitzarekin batera etortzen diren aldaketei aurre egiten laguntzeko batidoak nola prestatu ikasi zuten.





Mulk, Saia Goait eta DJ Wendi MUTRIKUKO Gaztetxian

Puntako kontzertua izango da gaur Gaztetxian. Izan ere, Saia Goait Mutrikuko taldeak bere lehen diskoa grabatzeko antolatutako duen lehen ekitaldia izango baita gaurkoa. Laguntzaile Bilboko Vulk taldea izango dute eta jaialdiari amaiera emateko DJ Wendi (Endika Lekube) mutrikuarrak itxiko du kontzertua. Besteak beste, Keike, Krauss eta Karenka taldeetan ibilitakoak dira Saia Goait taldea osatzen dutenak eta egiten duten musika *stoner rock eta hard rockaren* inguruan dabil. Vulk taldeak, berriz, Erresuma Batuko post punka eta Estatu Batuetako 90ko indie-alternatiboa egiten du. Kontzertua gaueko 22:30ean hasiko da eta sarrerak 5 euro balio du.



"Erlauntza" antzezlana gaur ELGOIBARREN

Gaur, barixakua, "Erlauntza" antzezlana eskainiko du Vaiven Producciones taldeak Elgoibarko Herriko Antzokian. Txikitako lagun kuadrilla bat asteburu pasa joango da landetxe batera beraietako baten ezkon aurreko agurra ospatzera. Asteburu "eroa" izan behar zena, are gehiago erotuko da; trapu zaharrak, esan gabeko gauzak, esandakoak, alkohola, droga eta erlauntz bat. Saioa 20:30ean hasiko da. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro gazte-txartela dutenentzat).

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- **Hilaria Zapatero Sarasola.** 98 urte. 2019-II-20.
- **Mª Luisa Aspiazu Kortaberria.** 98 urte. 2019-II-20.
- **Ramon Calviño Miguez.** 90 urte. 2019-II-22.
- **Felicidad Ramos Tordable.** 86 urte. 2019-II-23.
- **Itziar Olaizola Loiola.** 69 urte. 2019-II-24.
- **Adela Cobo Peral.** 100 urte. 2019-II-24.
- **Ignacio Aranberri Aizpurua.** 64 urte. 2019-II-25.
- **Jose Miguel Garcia Gonzalez.** 58 urte. 2019-II-25.
- **Mª Jesus Notario Berlinches.** 82 urte. 2019-II-25.
- **Margarita Uriarte Zallo.** 91 urte. 2019-II-26.

jaiotakoak

- **Mary Carmen Ramos Villafaña.** 2019-II-19.
- **Mohamed Malki Dahmani.** 2019-II-20.
- **Julen Luque Fuentes.** 2019-II-20.
- **Paul Meire Cagigas.** 2019-II-20.
- **Jule Agirrebeña Vega.** 2019-II-22.
- **Jaione Carmen Romero Asencios.** 2019-II-23.
- **Zaina Znagui Assamouzi.** 2019-II-23.

farmaziak

- Barixakua 1**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Zapatua 2**
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Domeka 3**
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Astelehena 4**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Martitzena 5**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 6**
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Eguena 7**
EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)
- Barixakua 8**
EGUNEZ **Castafio** (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI - 2019AN-
Zulueta (San Agustin, 5)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

6	2	5	9	8	7	4	3	1
7	4	1	2	6	3	5	9	8
3	9	8	1	4	5	2	7	6
4	3	2	7	5	6	8	1	9
5	7	6	8	1	9	3	4	2
1	8	9	4	3	2	6	5	7
9	1	3	6	2	4	7	8	5
8	6	4	5	7	1	9	2	3
2	5	7	3	9	8	1	6	4

	5		3	8				
	1				2		3	
4				6			2	9
			7					1
	3						9	
9					3			
8	9			3				5
	6		1				4	
				4	9		7	

Barixakua 1

IKASTEN

10:00. Antzerkia. Luzatze-ariketak. Portalean.

11:00. Jardiñetan. San Andres egoitzan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17:00/20:00. Giza irudien XVII. Erakustaldia. Untzagan eta T. Etxebarrian.

ZINE-FORUMA

19:00. Sarah Gavron zuzendariaren "Sufragistas", Pagatxaren eskutik. Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez Elkoro. Jarduera doakoa eta irekia. Portalean.

BARIXAKU ERREGULARRA

20:00. Urkizutik Untzagara, Kaldereroen kalejira.

20:30. Kaldereroen abestiak eta dantzak.

21:00. Aratosteetako pregoia, ...eta kitto!-k eta Kezka-k antolatuta.

23:30. "Los chivatos de Ana Frank" taldearen kontzertua. Untzagan.

Zapatua 2

ASTELENA PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30. 3 euro (EMGI bonoarekin doan). Astelena frontoian.

ARATOSTE ZAPATUA

12:00. Animazioa eta pintxo-potea, San Kristobalگو Jai Batzordearekin. Untzagan.

12:30. Aratosteetako koadrilen kalejira, Ustekabe fanfarrearekin.

12:30/14:00. Rockalean taldearen emanaldia.

12:30/14:00. Photocall-a. Untzagan.

18:00. Koko-jantzi lehiaketa, Galiziako Etxean.

18:00/20:00. Untzagatik hasita, Brass Band taldearen kalejira.

18:30/21:30. Umeendako berberna, Alaiki taldearekin.

19:00. Aratosteetako lehiaketen sari banaketa.

Untzagako karpan.

19:00/21:00. Photocall-a. Untzagan.

23:30/02:00. Dantaldia, Alaiki taldearekin. Untzagan.

Domeka 3

ARATOSTE DOMEKA

11:00. Aratosteetako kalejira, Usartza Txistulari Bandaren eskutik.

17:00. Umeendako playback lehiaketa, DJ Arnorekin, ...eta kitto!-k antolatuta. Untzagan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gunere irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipuruia kiroldegian.

MUSIKA

19:30. "The Urban Voodoo Machine"-ren kontzertua (Portalea Musika Kluba). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Portalean (areto nagusian).

Astelehena 4

IKASTEN

10:00. Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatu eta pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

Erakusketak

Martxoaren 3ra arte:
"DIKOTOMIA" KEIXETAREN
PINTURA ETA ZERAMIKAK
(Portalea)

Martxoaren 8ra arte:
"EMARIAK", EMAKUMEEK
HISTORIAN ZEHAR EGIN
DITUZTEN EKARPENEN
BILDUMA (Topaleku)

Martxoaren 31ra arte:
"EIBARKO BELOMOTORRAK"
(Eibarko Armagintzaren
Museoa)

Martxoaren 6tik 27ra:
"GURE MUNDUA
ERALDATZEKO 17 HELBURU"
(Portalea)

Martitzena 5

IKASTEN

10:00. "La musica en el cine" hitzaldia, Marina Lertxundirekin. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

HITZALDIA

11:30. "Pentsio publiko duinak", Jon Fano eta Carlos Ruiz Bizkaiko Pentsiodunen Plataformako kideen eskutik. Eibarko Pentsiodunek antolatuta. Portalean.

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

ARATOSTE MARTITZENA

17:30/18:30. Umeendako jolasak, Astixaren eskutik.
18:30. Sardinaren entierri txikia, trikitilariak lagunduta.

19:00. Umeendako diskoteka, Arima Cool Tour taldearekin. Untzagan.

19:15. Aratosteetako dantzaldia eta koko-jantzi lehiaketa. Untzagako jubilatutuekin.

GURASOAK MARTXAN

18:30. "Komunikazioa eta sare sozialak" ikastaroa. Portalean.

HITZALDIA

19:00. "Esklerosi anizkoitza, kirola eta bizipoza", Mikel Lizarralderekin. Deporren.

HARIXA EMOTEN

19:00. Joanes Urkixoren "Ekaitza urrun" liburuaren inguruko literatur tertulia. Portalean.

Barixakua 8

GREBA FEMINISTA

00:00. Hasi da Greba Feminista. **08:00.** Emakume ikasleen martxa. **10:30.** Kaleak hartu (ez mixtoa). **12:30.** Elkarretaratzea: "Bizitzak erdigunera!" (mixtoa, emakumeak aurrean).

13:00. Pikete Feministak (ez mixtoa). **14:30.** Topa eta bazkari autogestionatua (ez mixtoa). **17:00.** Zaintza tailerra (ez mixtoa). **18:30.** Irradaka dantza tailerra (ez mixtoa). **20:00.**

Manifestazioa: "Heterokapitalismo patriarkalari planto!" (mixtoa, emakumeak aurrean). Ondoren, ekitaldia eta akelarrea.

Eguaztena 6

IKASTEN

08:12. Ibilaldia: Irun (Ficoba) -Hendaia. Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua Ardantzatik (08:14 Estaziño).

INAUGURAZIOA

19:00. "Gure mundua eraldatzeko 17 helburu" erakusketa. Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Erritu" (Kukai Dantza / Sharon Fridman). 12 euro (8'5 Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Eguena 7

IKASTEN

10:00. "Arte y genero" hitzaldia, Marion Cruzaren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza taldearen entsegua (hastapena, beteroenen entsegua 18:00etan hasiko da). **19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HITZALDIA

18:30. "Klima aldaketaren inpaktuak Euskal Herrian", euskeraz, Elisa Sainz de Murieta (Basque Centre for Climate Change-BC3) eskutik. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "La luz oscura" (Producciones El Brujo). 15 euro (10'5 Coliseoaren Laguna txartelarekin). Hezkuntza Esparruan.

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, OSOITZ!!!, astelehenian 9 urte bete zenuzuen-eta. Musu potolo bat Julene eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EUKEN, 6 urte egin dozuz-eta. Musu bat famelixaren eta, batez be, Paule, Xuhar, Julene, amama eta aitxitxaren partez.



Zorionak, ASIER Telleria, bixar 4 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat Edurne eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARTIN, zure urtebetetzian! 4 urte gure bizitza pozez betetzen. Zoragarrixa zara eta asko maite zaitugu!!



Zorionak, ANE, martitzenian 9 urte egingo dittuzu-eta. Musu haundi bat Eibarko aitxitxa eta amamaren partez.




Zorionak, ASIER!!!! Bixar 4 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Edurneren partez!!




Zorionak, AMETZ, pitxin! Domekan 9 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, IKER, martitzenian 6 urte egin zenuzuen-eta. Musu haundi-haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ALAIN!!, bixar 9 urte egingo dozuz-eta. Ondo-ondo pasa!! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez!!



Zorionak, JON!!!! Eguaztenian 4 urtetxo bete zenuzuen-eta!! Musu bat famelixa guztiaren eta, batez be, Maialenen partez.




Zorionak, JARE, datorren astelehenian 3 urte egingo dozuz-eta. Ondo-ondo pasa eguna! Laztan haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, AIORA, gure famosia, astelehenian 10 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat aitaxo, amatxo eta Oihenarten partez.



Zorionak, GARI (astelehenian izan zan zure eguna) eta AITOR (datorren astelehenian egingo dozuz zuk urtiak). Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IGOTZ, martitzenian 6 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Aspaldi da "nik laister 5!" esaten zenuzuala. Eta heldu da otsaillaren 27xa. Zorionak, AITOR, eta bost musu potolo!!



Zorionak, PABLO Biribai, haraiñegun 10 urte bete zenuzuen-eta. Etxeko guztien partez.



Zorionak, ENARA, bixar urtiak beteko dozuz-eta. 12 patxo potolo-potolo danon partez!!!



Zorionak, JON, astelehenian 3 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

2an: 19:45, 22:30

3an: 20:00

4an: 20:30

"La escuela de la vida"

Zuzendaria: Nicolas Vanier



(2 ARETOAN)

2an: 17:00, 19:45, 22:30

3an: 17:00, 20:00

4an: 20:30

"Maria, reina de Escocia"

Zuzendaria: Josie Rourke



(NTZOKIAN)


2an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30

3an: 17:00^(1 Aretoa), 20:00

4an: 20:30

"Destroyer. Una mujer herida"

Zuzendaria: Karyn Kusama



(ANTZOKIAN)

2an: 17:00

3an: 17:00^(EUSKARAZ)

"Lego Filma 2"

Zuzendaria: Mike Michell



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisu merkea salgai Santo Domingo de la Calzada erdigunean. Bista ederrak. Konpontzeko. Tel. 675-803734.
- Pisu salgai Julian Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukaldea eta komuna. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.
- Pisu salgai Barrena kalean, Mutualia parean. 2 logela. Guztia kanpora begira, balkoiarekin. Berritua eta guztiz jantzia. Kalefakzioarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 135.000 euro. Garaje itxia aukeran (15.000 euro). Tel. 679-867543 eta 660-805301.

1.2. Errentan

- Logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 612-450354.
- Pisu hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 612-201719.
- Pisu hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2-3 logelakoa. Tel. 627-820417. Dolores.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garajea alokagai Ipuruako dorreetan. Auto handi baterako. Prezio onean. Tel. 943-700173 eta 608-464144.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 616-296731.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-450354.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-603259.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. Tel. 631-906590.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 612-374783.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita gauetan ere. Erreferentziak. Tel. 632-098382.
- Emakume euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 669-243901.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 631-418130.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-082156.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Baita gauzez ere. Tel. 688-959575.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 650-152866.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-464072.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-374471.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 628-529252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lan egiteko. Tel. 643-398596.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 680-305891.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-492519.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-576630.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 675-617892.
- Emakumea eskaintzen da egunez nagusiak zaintzeko. Tel. 612-201719.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 612-463096.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-470506.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 678-112785.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 655-094780.
- Gizona eskaintzen da garbiketarako egiteko eta eraikuntzan edo pintura lanetan jarduteko. Tel. 603-209416.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-258718.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-921780.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Interna. Tel. 644-558390.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-063561.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-881161.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 660-140707.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Esperientzia. Orduka. Tel. 667-060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 602-405039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 602-406981.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-501003.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-405748.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-115646.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-272926.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 642-609678.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-134601.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 666-199007.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 693-673904.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 663-535925.
- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 698-733356.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-133720. Indhira.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-995976.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-452026.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-215212.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-265561.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, pegorak garbitzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 643-158904.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-259243.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 698-375766.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 675-965130.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 605-598999.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 674-579736.

4.2. Langile bila

- Saltzailea behar da arratsaldean (lanaldi erdian) lan egiteko. Eraman curriculum-a Closet dendara (Estaziño, 10).
- Kamarera/o behar da Eibarren asteburuetan lan egiteko. Bidali curriculum-a: tre@euskalnet.net
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Tel. 622-142679.
- Langilea behar da Eibarko No+Vello estetika zentroan. Estetizista-titulua, laser depilazioan edo IPL-an esperientzia, merkatal dhoaiak eta euskera maila baloratuko dira. Bidali curriculum-a: eibaregogain@nomasvello.com

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- DBH 4ko ikasleak laguntza-klaseak behar ditu hizkuntza- eta irakur-gaietarako. Tel. 652-712639.

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.2. Eman

- Artzai txakurkumeak oparitzen dira, ondo zaintzeko. Tel. 695-716229 eta 943-203205.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus



Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

MAIATZA-EKAINEKO DEIALDIA
AZTERKETAK Eibar, Arrasate, Durango, Bilbo eta Markinan

MATRIKULAK
Martxoaren 1etik 22ra

	AZTERKETA DATAK	
STARTERS	Ekainaren 1ean (larunbata) AZTERKETA OSOA	
MOVERS	Ekainaren 1ean (larunbata) AZTERKETA OSOA	
FLYERS	Ekainaren 1ean (larunbata) AZTERKETA OSOA	
KET (FOR SCHOOLS)	(PAPERS 1,2) Ekainak 8 (larunbata)	(SPEAKING) Maiatzak 31 - Ekainak 9
PET (FOR SCHOOLS)	(PAPERS 1,2) Ekainak 8 (larunbata)	(SPEAKING) Maiatzak 31 - Ekainak 9
FCE	(PAPERS 1,2,3) Ekainak 8 (larunbata)	(SPEAKING) Maiatzak 31 - Ekainak 9
FCE	(PAPERS 1,2,3) Ekainak 22 (larunbata)	(SPEAKING) Ekainak 14 - Ekainak 23
CAE	(PAPERS 1,2,3) Ekainak 1 (larunbata)	(SPEAKING) Maiatzak 24 - Ekainak 2
CAE	(PAPERS 1,2,3) Ekainak 22 (larunbata)	(SPEAKING) Ekainak 14 - Ekainak 23
CPE	(PAPERS 1,2,3) Ekainak 13 (osteguna)	(SPEAKING) Ekainak 7 - Ekainak 16
PET	(PAPERS 1,2) Maiatzak 24 (ostirala)	(SPEAKING) Maiatzak 17 - Maiatzak 26
FCE FS	(PAPERS 1,2,3) Ekainak 15 (larunbata)	(SPEAKING) Ekainak 7 - Ekainak 16

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83
	Idiomaster	943 79 07 84
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53
BILBO:	Capital Languages	94 445 73 04
EIBAR:	Link Idiomas	943 20 39 59
	Target School of English	943 20 01 08
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32
ELGOIBAR:	Key Academia de Inglés	943 74 30 44
OÑATI:	Sounds Great	943 78 20 91

DEBA:	Akabi	943 19 16 79
	North Street English	652 44 86 46
	San Jose Maristak	94 681 00 58
DURANGO:	Akabi	943 75 50 55
MENDARO:	Chatterbox	94 616 96 39
MARKINA:	Lea Artibai Ikastetxea	94 616 90 02
	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
ELORRIO:	Speak up	94 622 52 94
BERRIZ:	Golden Gate	943 86 50 20
ZUMAIA:	Gogoz	943 60 43 58
MUTRIKU:		




**Ekonomia
Susperzeko
Plana: %8,1,
langabezia
tasari txikiaren
lurraldea.**

Ekonomia Susperzeko Planera 200 milioi bideratzeak, besteak beste, lanpostuak sortzeko, zentzua du soilik inbertsio horren atzean zu baldin bazaude. Eta zu bezala, gure lurralderako etorkizun hobea nahi duten mila-kita pertsonak.

Gipuzkoa,
zenbakiekin
soilik kontatu
ezin diren 4 urte.



Tratamendu-arlo guztietan
ISO 9001:2015 ziurtagiria lortu duen
EUSKADIKO LEHENENGO KLINIKA DA



DERMITEK
Uribitarte Pasealekua, 11-12
Isozaki Dorreak
48001 BILBO

DERMITEK KLINIKA: Barize lodiak kirurgiarik gabe ken daitezke, ebakuntza ostekorik gabe eta saio bakarrean

MINA, ASTUNTASUNA, AZKURA ETA ZAIN HANPATUAK DIRA, BESTEAK BESTE, BARIZE LODIAK DITUZTENEN SINTOMETAKO BATZUK. Bilboko Dermitek Klinikako Raquel Lambea doktoreak azalduko digu nola laguntzen dieten Dermiteken pertsona horiei barizerik gabe bizitzen.
– **Zain barneko laserra barizeak kentzeko behin betiko metodoa al da?**

Galdera horri gure esperientziaren benetako datuen bidez erantzungo diot: zain barneko laserraren birgaixotze-tasa % 0,6koa da tratamendua bukatu eta hurrengo urtean, hots, oso urrun dago ebakuntza-gela batean operatutako barizeen % 20ko birgaixotze-tasatik eta aparrez tratatutako barizeen % 40ko tasatik.

2010ean hasi ginen zain barneko laserra aplikatzen eta Dermitek klinikan dihardugunok ziurtzat jotzen dugu tratamendu horren eraginkortasuna; hortaz, edozein arrazoi dela eta, lehenengo hamabi hilabeteetan birgaixotzerik gertatuz gero, tratamendua doan emango genuke berriro.

– **Zergatik aukeratu du teknika hori Dermitekek?**

Zain barneko laser mota asko dago. Eta horietako batzuk probatu ondoren, Dermiteken 1.320 eta 1.470 nanometroko laserrak aukeratu ditugu lan egiteko, horien emaitzak bikainak direlako eta tratamenduaren ondorengo garaia aparta delako.

Zain barneko laserra lehenengo aukeratzat jotzen dute nazioarteko mailan ezaugarri hauek dituelako:

- Birgaixotze-tasa txikia: lehenago esan dudan bezala, % 0,6koa, Dermiteken tratatu diren 1.500 kasuen artean egindako azterlan baten arabera. Kasuen eboluzioa zaindu ohi dugu lehen urtean, emaitza egiaztatu eta bermatzeko.
- Arrisku gutxiago: teknika ez erasokorra da, hots, kirurgia, ebaki, puntu eta ebakuntza ostekorik gabea.

Anestesia lokala bakarrik erabiltzen da eta saio berean bi zangoetako safena benak trata ditzakegu.

- Tratamendu ondoko deserosotasun gutxiago: pazienteak oinez aterako da klinikatik eta konpresio arineko galtzerdi bat eraman beharko du eta egunean bitan ibili bi astetan zehar, besterik ez.
- Eta berehala hasiko da ohiko bizimodu izaten: gure pazienteek garrantzi handia ematen diote horri.

argazkiak ikusi beharko ditugu, historia klinikoa eta gutxi gorabeherako aurrekontua egiteko.

Hurrengo kontsultan, azaleko zein sakoneko zain-sistemaren mapa egingo dugu, tratamenduaren egunean mediku-taldeari zehaztasun osoz gidatzeko.

Ordubetean eta saio bakarrean burutzen dugu tratamendua. Laserrak, oso zuntz mehe baten bidez, zain gaixoaren barrutik eragiten du eta hori erabat itxi eta



Zertan datza tratamendua?

Pazientea eta medikua elkartzen diren lehenengo aldian, informazioa ematen dugu doan, hots, diagnostikoa egiten dugu doppler ekografia bidez, arazoa non dagoen zehazteko eta tratamendua nola-koa izango den azaltzeko.

Lehenengo kontsulta hori telefonoz, Skype bidez edo gure web-orriko inprimakia betez ere egin daiteke, nahi izanez gero. Aldez aurretik pazientearen

desagerrarazten du. Prozesu hori ekografia baten bidez kontrolatzen dugu eta anestesia lokala bakarrik erabiltzen dugu.

Bukatutakoan, pazienteak oinez aterako da klinikatik ordu-erdiz ibiltzera, zangoan konpresio-galtzerdi bat daramala. Ohiko jarduerari berehala ekin diezaioke berriro, lanari ere. Bi egun, bi hilabete eta 9-12 hilabete igaro ondoren ikusiko dugu paziente berritua klinikan, barizea berritua agertu ez dela ziurtatzeko.